

i edo adikzio baten anatomia

BEATRIZ FERNÁNDEZ¹

UPV/EHU

(*i* (the Basque dative) or the anatomy of addiction)

Euskal Herrian, kostaldeko herri batean
2013. urteko udan

Zuoi ez bada,
nori bestela?

I'm a bitch, I'm a lover, I'm a child, I'm a mother
I'm a sinner, I'm a saint, I do not feel ashamed
I'm your hell, I'm your dream, I'm nothing in between
You know you wouldn't want it any other way

Bitch, Meredith Brooks, 1997.²

Abstract

This paper is devoted to i, the Basque dative case marker. In part I, the paper aims at presenting a general approach to the locus of syntactic variation within Universal Grammar (sections 1.1 to 1.3). After an excursus on the use of minorized languages in science (1.4), a discussion on parameters is provided. In (1.5), the notion of macroparameter from the 80's is critically

¹ Lan honetan ageri diren pertsonaia eta gertakari guztiak, eremu publikoan argiro daudenak izan ezik, fikziozkoak dira. Beraz, antzekotasunik baldin badago benetako pertsonekin (hil ala biziekin), halabeharrari zor zaio erabat. Lan honen hasierako idatzaldiaren irakurketa eta zuzenketa zehatz eta zorrotza egin zuten Ibon Sarasolak, Patxi Goenagak eta Xabier Bilbaok. Hirurekin zortetan daude, beraz, testu hau eta bere egilea. Baita *Gogoa* aldizkariko Kepa Korta editorearekin ere, lan hau argitaratzeko ausardia izateagatik, eta ikuskatzaile izengabe batekin bere berrikusketarengatik. Orobat, hasierako idatzaldiaren irakurleak izan ziren, besteak beste, Pello Salaburu, Jon Ortiz de Urbina, Josu Landa, Ane Odria, Ane Berro, Itziar Laka, Arantzazu Elordieta eta Juanan Sanabria. Egileak bere esker ona adierazi nahi die guztiei euren gogoetengatik eta iradokizunengatik. Azkenik, ondoko instituzio eta ikerketa proiektuek babestu dute lan hau: Eusko Jaurlaritzak (IT665-13); Espainiako Ekonomia eta Leihakortasun Ministerioak (FFI2011-26906), eta Frantziako Agence Nationale de la Recherche (RDKR 2012-16 eta TSABL (2008-2011: ANR 07 CORP 033)). Gainerakoan, emaitza hauetara ekarri gaituen ikerketak Europar Batasunaren ikerketarako, teknologia garatu eta erakusteko Zazpigarren Esparru Programaren laguntza jaso du 613465 diru-laguntza hitzarmenaren bitartez.

² *Bitch (Nothing in between)*, Meredith Brooks, *Blurring the edges*, Capitol Records, 1997.

discussed mainly but not only the lines of Newmeyer (2005). The last section (1.6) supports to focus on microparameters, along the lines of Kayne (2000, 2005), as the right way to properly understand and explain variation. Part II provides an analysis of the main properties of Basque datives (sections 2.1 and 2.2). Sections 2.3 and 2.4 are devoted to the nature of Basque inflectional morpheme (k)i, interpreted as an applicative morpheme which 'applies' dative object arguments to the structure. Finally, microcomparative analyses on Basque Differential Object Marking and Dative Displacement are presented in sections (2.6) and (2.7) respectively.

Keywords: *Dative, Basque syntax, syntactic (micro)variation, parameters, differential object marking, dative displacement.*

Hitzaurrea

Izkribu honek *i*-z dihardu. *i* morfema bat da, kasu marka bat, eta *datibo* izena du. Izkribu honen idazlea, hortaz, gramatikari bat da halabeharrez. Hobe dut hasieratik aitortu, inori iruzurrik egin gabe.

Hizkuntzaren mendekoak gara gramatikariok: hizkuntzak errotik gatibatu gaitu eta nekez askatuko. Izatez, guk geuk ere, hizkuntzaren gatibuok, ez dugu bere mendetik atera nahi, ez dugu libre izan nahi, edo ez, behintzat, bere mugetatik kanpo. Eta halakoxeak gara baita euskal gramatikariak ere, euskara baita territorio libre bakarra, poeta gatibuak dioenez. Euskararen mendekoak gara, beraz, eta euskaraz gara libre.

Dena den, mendetasun fokatua da gurea, adikzioak bere apetak baititu. Nirea *i*, hots, euskal datiboa izan da urte askotan zehar, sendabiderik ez duen adikzioa, itxura guztiaren arabera. *i* hori, itxuraz behintzat, gauza txiki bat denez, xehea izatea dagokio, eta halaxe, letra xehe batez adieraziko dut testuan, tipografiak letra larria agintzen duen testuinguruetan ere, esaldi honen hastapenean, adibidez. Poetek lizentzia poetikorik badute, barka bekit niri ere poetiko samarra den lizentzia hau.

i horren aztarnari segika, giza hizkuntzaren datibo kasuaz gogoeta egiteko parada izan dut urteotan: nondik ote dator *i*?; zeri gaineratzen diogu eta zergatik?; zein ezaugarri ditu *i* hori jasotzen duten banako linguistikoek?; zehar osagarriak dira beti ala ez nahitaez?; perpausean *i* nonbait agertzeak eragiten al dio aditz laguntzaileari, eta hala bada, zertan? *i* bat bera dago euskaraz edo badira lekuan lekuko *i*-ak ezaugarri idiosinkrasikoak dituztenak? Izkribu honetan galdera hauetariko batzuk erantzuten ahaleginduko naiz.

Dena dela, hori baino lehenago, gramatikarien zereginari buruzko zertzelada batzuk azalduko ditut izkribuaren lehen atalean, datiboaren inguruko gogoeta behar den eremuan kokatzeko. Herritar gehienek, baita izkribu hau

eskuen artean dutenek ere, gramatika arauemailearekin lotzen dute gure zeregina, alegia, zer den zuzena eta zer okerra epaitzearekin, eta oso urruti dabil ni bezalako gramatikarien lana zeregin horretatik. Guk ez dugu hiztunen erabilerara arautzen; gu hiztunen jakintza linguistikoa azaltzen saiatzen gara. Gurea ez da gramatika arauemailea, gramatika teorikoa baino. Guk deskubritu nahi duguna da ea hiztun batek zer dakien bere hizkuntzaz, euskaldunak zer dakien euskarari dagokionez. Gure gramatikak jakin nahi du zergatik diren perpaus batzuk onargarriak hiztun batentzat eta beste batzuk, aldiz, ez, eta hiztun horren iritziez baliatuz, hipotesi multzoak eraikitzen ditugu, giza hizkuntza eta euskara bera hobeto ulertuko ditugulakoan.

Bistan denez, aditua ez bada, aritua bederen izan behar da honetan interes izpi bat izan dezakeen irakurlea. Alabaina, ez da irakurle aditua ezta halabeharrez aritua neronek gogoan darabildana lerro hauek idazten ditudan bitartean. Oraingo honetan, nire eguneroko zereginetan ez bezala, ez dut balizko gramatikariekin hitz egin nahi, gramatikariak ez direnekin baino; ez dut aditurik espero testuaren bestaldean, nire kontakizuna entzun nahi duen irakurle soil bat baino. Irakurle hori hizkuntzazalea eta euskaltzalea dela pentsatzen dut, baina hortik aurrera beste ezer gutxi. Jakina, irakurle euskaltzale osasuntsu horrek ez du zertan pairatu gurea bezalako adikzioaren ondorioak. Mendetasuna ulertezina eta jasangaitza da sasoikoa den pertsona batentzat. Horregatik, gai izatez ulergaitzeko testu hau han eta hemen gazi-gozatzen saiatu naiz, mintzagai nagusiarekin nahitaez zerikusirik ez duten bestelako gaiak tartekatuz. Beraz, *i* letra xeheaz idazteaz gain, irakurleak barkatzuko dizkit testuetako digresio eta tartekiak, ez baitute testua arintzeko asmoa besterik. Osteen, testu hau nagusiki udako egunez baliatuz idatzi dut, eta udan behar den bezala, bazterrean utzi ditut jardun zientifikoan ezinbestekoak diren jokamolde neurritsu eta jasoa eta doinu aseptiko eta monokordea ere.

Bi dira izkribu honen atal nagusiak eta intermezzo batek bereizten ditu biak. Lehen atalean, gramatikari teoriarezaleon lanaren ardatzak azalduko ditut pausoz pauso: zergatik den gurea gramatika unibertsala (1.1 *Gramatika unibertsala gurean...*); bestelako gramatikak ere badirela (1.2 *Beste gu...*); gramatika unibertsalak ez diela muzin egiten hizkuntzatik hizkuntzara dauden berezitasun sintaktikoei eta parametroen bitartez azaltzen dituela (1.3 *Heuscara, habil mundu gucira...*). *Excursioa* dator ondoren, euskal gramatikarion, hots, hizkuntza txiki bateko ikertzaileok zientzia jardunean erabili beharreko eta *de facto* darabilgun hizkuntzaz gogoeta egiten duena; parametroen kontrako kritika jasoko dut gero (1.4 *Parametroak: gailurretik gainbehera*), eta lehen atalean azkenik, makroparametroetatik mikroparametroetarako ikusmira aldaketaren muinaz mintzatuko naiz (1.5 *Negua joan da ta...*).

Intermezzoak lehen atal hau bereizten du *i* datiboari buruzko bigarren ataletik. *i izatearen garrantzia* izenekoak (2.1) ematen dio hasiera bigarren ata-

lari; *i*-k euskaraz jeneralean erakusten dituen ezaugarriak aztertuko ditut ondoren (2.2 *i orotarikoa*). *i* kasu markarekin batera, adizki jokatueta ageri den (*k*)*i* markaz jardungo dut gero (2.3 *i ispiluaren aurrean*), eta *i* zein (*k*)*i* biak izango ditut gogoetagai *i* eta (*k*)*i*-z *hausnartzen* izeneko zatian (2.4). Hizkuntzan orokorturik ez badaude ere, lekuan lekuan aurki daitezkeen bi *i* azalduko ditut azkenik, *i kostaldekoa* (2.6) eta *i bazterrekoa* (2.7) Amaiera atala dator bigarren atalaren ostean.

Izkribua irakurtzeko moduari dagokionez, testua ahal den eta biluzien eta soilen ematen saiatu naiz, segidan eta oin-oharrei erreparatu gabe irakurri ahal izateko. Horregatik, aipamenak egiterakoan, egileen izen-abizenena baino ez dut egin testuan eta lanarena berarena, hots, argitalpenaren urtea, oin-oharretarako gorde dut. Aipamen hauek ez dira erakustaldi akademiko narzista bezain hutsal baten apaingarriak, gaian eskarmentua duen idazleak, jakin-mina duen irakurleari bidean aurrera doala, han eta hemen utzitako seinaleak baino.

Bestalde, testuan kantu edo poemaren baten atal baten aipamena egin dudan guztietan, bere iturburua zein den jaso dut oin-oharrian. Nire diskografia zati horretako aipamen asko niri bezain ezagunak izango zaizkio irakurleari kasu gehienetan, eta horregatik ez du behera begiratu behar izango iturburua zein den jakiteko. Hala ere, xehetasunetan ni bezain obsesiboak direnek badute nora jo, hala nahi izanez gero.

Azkenik, aipamenak ez ezik, bestelako oin-oharrak ere gaineratzea erabaki dut, gertakari nagusiez gain, bidetik tarteka atera nauten gertakari txikiagoak eta gogoeta periferikoak ere jasotzearen izkribuan.

Idazleari dagokionez, izkribu hau iragana da dagoeneko. Geroa izango du irakurleak hala nahi izanez gero.

I. Atala. Gramatika Unibertsala, euskara eta parametroak

1.1. Gramatika unibertsala gurean, gurea ere gramatika unibertsala

Gizakiok harreman intimo eta estua dugu hizkuntzarekin eta hizkuntzak egiten gaitu gizaki. Euskaldunoi ere, gizakiak garen aldetik, halaxe gertatzen zaigu euskararekin ere, euskara baita gure izatearen erakusgarririk berezkoena eta hortaz, euskarak egiten baikaitu euskaldun.

Euskaldunok badugu berezko joera gure hizkuntzaren inguruko gogoeta egiteko. Gogoeta hori askotarikoa izaten da: erabileraz hitz egiten dugu, erabileraz eskasaz sarri; dena delako hitz baten esanahiaz edo hitzak elkarri josteko moduez; gauzak zuzen esaten ote ditugun eta nola idatzi behar ote diren...

Izkribu honetan ere euskararen inguruko gogoeta egingo dugu, nahiz eta gogoeta horrek zerikusi gutxi izango duen ziur aski irakurleak gogoan eta minganean erabili izan dituen gaiekin. Izkribu honetan, euskararen erabileraz gabe, euskararen jakintzaz hitz egingo dugu, euskaldunok gure hizkuntzaz zer dakigun arakatuko dugu; zer ote den gure izatearen funtsa, horixe izango da gure gogoetagai nagusia.

Bestalde, euskaldunok bereziak eta diferenteak garela sentitu ohi dugu eta bereziak eta diferenteak garelako aldarria egin ohi dugu, gainera. Besteek ere berezi ikusi izan gaituzte eta horrek gure barneko sentipen hori sendotzen lagundu du. Egia da, bagara nolabait diferenteak. Nolanahi ere, hasiera honetan, behintzat, guztiz kontrakoa den ikusmira erabiliko dut: euskaldunak diferenteak gara, bai, baina *azken finean gizaki hutsak gara*,³ eta aitormen hori euskarari ere badagokio: euskara diferentea bai, baina azken batean giza hizkuntza bat da.

Geroxeago helduko gara, nahi baduzue, euskararen berezitasunetara, baina utzidazue ordura bitartean bestelakoa den alderdi hau urratzen. Gizakiok hizkuntza gaitasuna dugu jaiotzez. Gaitasun hori, hortaz, unibertsala da, hots, ez dago hizkuntzarik ez duen hiztunik, oso patologia larrien mendean ez badago bederen. Askotarikoak dira hizkuntzaren unibertsaltasuna ez ezik, jaiotzezkotasuna ere aldarrikatzen dutenen argudioak. Esate baterako, umea oso goiz jabetzen da bere ama hizkuntzaz. Sintaxiari dagokionez, hiru bat urterako ume batek bere hizkuntzaren sintaxiaz jakin beharreko (ia) guztia daki. Ez du horrek esan nahi, jakina, hizkuntzaz ari garela hori baino beranduago ezer ikasi ezin dezakeenik, nerabezaroaren hasierara arte luzatzen baita hizkuntza jabekuntza. Dena dela, muineko sintaxi kontuetan, hiru urteko umea jenio bat dela diote adituek. Umeak, bestalde, aro bertsuetan eta modu berean jabetzen dira hizkuntzaz. Igual dio zein den umearen jatorria, zein bere bizi baldintzak, zein bere hizkuntzaren berezitasun formalak. Ez dirudi horrek guztiak inola eragiten dionik hizkuntzaren jabekuntza goiztiarrari dagokionez. Umeak, azkenik, oso oinarrizko datuak besterik ez du behar sortzez duen gaitasuna abian jartzeko eta bere ama hizkuntzaz jabetzeko. Izan ere, umeak hizkuntzarekiko harreman goiztiar horretan, datu urri eta, sarri askotan, eskasetatik garatzen du gerora sistema ezin sofistikatuagoa izango dena, hots, euskara edo munduko beste edozein hizkuntza. *Estimulu en urritasuna* edo *Platonen arazoa* deitu izan zaio honi. Nola liteke, beraz, hau guztia hala izatea, hizkuntza jaiotzekoa ez bada?

Gaitasun bat bera eta unibertsala izan arren, gizakiok ez dugu hizkuntza bat bakarra, sei bat mila hizkuntza baino, eta hizkuntza horietako bat da euskara. Euskara, beraz, jaiotzeko gaitasunaren adierazgarri bat baino ez da eta

³ *Aitormena* (Josu Zabala), Hertzainak, *Amets prefabrikatuak*, Oihuka, 1989.

gainerako hizkuntzetatik ez oso diferentea. Horregatik, hizkuntza gaitasun bat bera badago askotariko adierazpideekin (euskara zein gainerako hizkuntzekin), orduan, euskararen inguruan gogoeta egiteak hizkuntza gaitasunaren inguruko gogoeta egitera garamatza eta alderantziz. Bada, gogoeta hori sistematikoki eta zientzia irizpideak jarraituz egiten duena *gramatika unibertsala* da.

Euskal Herria, behin bada ere, berritzaile samarra izan zen honi dagokionez, eta Patxi Goenagaren *Gramatika bideetan* liburuaren zorioneko argitalpenak (1978 Erein, Donostia) Euskal Herrira ekarri zuen hemendik kanpo, nazioartean ordurako zabaltzen hasia zen haize bolada zientifiko fresko hura. Harrigarria izan zen, bestalde, argitalpen hura, liburu printzipioz tekniko eta jaso bat, hots, eremu akademiko hertsu samarrera jaiotzatik kondentatua behar zuena, euskal plazara atera zelako kaletarren eskuetara iritsiz, eta kaletarrek (eta ez adituek bakarrik) irakurri egin zutelako liburu hura. Ez da gutxi. Zientzia zabalkundea euskal gramatkarion zeregin askotariko bat izan beharko litzateke, Goenagaren pausoak jarraituz.

Xehetasun soziologikoak alde batera utziz, Goenagak gramatika unibertsala ekarri zuen gurera, eta gure gramatika, euskal gramatika, gramatika unibertsala ere bazela irakatsi zigun, irakurleari dagoeneko paradoxikoa irudituko ez zaiona goiko lerroak irakurri eta gero. Gramatika unibertsalak *gramatika sortzailea* deitura du. Izan ere, gramatika sortzailea izenekoa da gramatika unibertsal bat, hau da, giza hizkuntzaren inguruko teoria bat eraiki nahi duena. Horregatik, gramatika sortzailea gramatika teorikoa ere bada. Goenagaren lanaz geroztik, eredu teoriko bat baino gehiago ezagutu ditu gramatika horrek, izkribuan zehar ikusiko dugun bezala, eta gaur egun indarrean dagoen egitasmo zientifikoa urrun samar dago hasierako formulazioetatik, baina ordutik gaur arteko izpiritua bat bera dela esango nuke: giza hizkuntza bat bakarra dago jaiotzez eta gramatika unibertsala bere gaineko teoria da.

Esan gabe doa gramatika sortzailea ez dela hizkuntzalaritzan indarrean dagoen teoria bakarra, eta ez garelako teoria horretakoak Euskal Herrian gramatikan dihardugun hizkuntzalari guztiak. Nolanahi ere den, Euskal Herrira gramatika sortzailea helduz geroztik, bertan umotu den teoria izan da beharbada Goenagaren hizkuntzalari sen handi eta jardun onaren ondorioz edo auskalo zer beste misterioengatik. Eta gramatikaz zertxobait (asko ere ez) dakigunok badakigu ordutik aurrerakoa diferentea izan zela euskal gramatikagintzan —diferentea, dudarik gabe onerako—, eta Euskal Herria horretaz den bezainbatean, herri moderno eta unibertsalago bat da harrezkero.

1.2. Beste gu. (Gramatika arauemailea eta gramatika deskribatzailea)

Gramatika teorikotik aparte, hots, gramatika zientifikotik aparte, badira bestelako gramatikak, eta eskola sistemaren betiketze mekanismo astun eta

aldagaitzei esker, gramatika horietako bat, arauemailea deitu ohi duguna, ezagun samarra da eskolatuak diren herritar gehienentzat. Gramatika arauemailea akademiak idazten du, gure kasuan Euskaltzaindiak, eta hizkera estandarra ezarri, landu eta zabaltzeko asmoa du, euskara batua gurean. Euskara batuaren gainean hitz egiteko, badira gaian adituak direnak eta eurei dagokie gaiak hitz egitea. Hala egin izan dute, ozen, gainera, batzuetan. Gogora ezazue bestela Ibon Sarasolaren *Euskararen ajeak*, hautsak harrotu zituen, eta Koldo Zuazoren *Euskararen sendabelarrak*, zabalkunde lan esanguratsu bi besterik ez aipatzearen.⁴ Nolanahi ere den, gogora dezagun euskara batua (eta beste edozein hizkuntzatako hizkera estandarra) idazkerara begira sortua dela edo bestela ahozko erabilera jasoetara begira. Irratiko eta telebistako esatariek, Eitb-koek esaterako, batuan hitz egitea espero dugu eta ez euren herriko hizkeran, baldin eta halakorik badute, bederen. Horrek, jakina, ez du esan nahi euskara batua ez den beste hizkerarik erabili ezin dezaketenik mikrofonotik kanpo ari direla edo lagunartean hizketan. Ezta herriko hizkeren doinurik antzeman ezin daitekeenik ere bestelakoak diren irrati eta telebistetan, Ondarroako *Radixu* irratian adibidez. Idatzizkoaz ari garela, bestalde, euskara batuan irakurtzen dugu *Berria* egunkaria goizero eta *Ereduzko prosa gaur*⁵ corpusera jo besterik ez dugu euskara batuan idatzitako liburuen lagin oparo bat ikusi nahi bada. XXI. mendeko askotariko testuak jasotzen ditu, bestalde, *Egungo testuen corpusak*.⁶ Erregistro formalarekin segituz, azpeitiar eta bermeotar ikasle gazteen unibertsitateko azterketetan, euskara batua espero du irakasleak. Baita ahozko azalpena ematen dutenean ere (berezko hizkerek zipriztindurik doinu berezi eta aldi berean ederra duten arren). Besterik da gero azpeitiar horrek berak beste azpeitiar bati sakelako telefonotik e-mezurik idatziz gero, azpeitiarrez idaztea eta ez batuan (edo bermeotarrak bermeotarrari bermeotarrez). Alabaina, hartu-eman linguistikoak askotarikoak direnez, kontua da nola idatziko ote liokeen (eta idazten dion) azpeitiarrak bermeotarrari eta alderantziz; eta are gehiago, nola idatziko lioketen ikaskide gasteiztarrari (euskara lekuko hizkera ez duenari) eta gasteiztarrak lehen biei erantzun. Euskara batuan, espero dezagun. Gaztelaniaz? Hor dago koska.

Eta geroa ez dago batere argi. Ihes egindako poetaren hitzak, hizkerakoak oraingo honetan, gogora ekarriz: *dana lanbrotute ikustot paña / estakipa estakipa / au etxate bape gustetan eee*.⁷ Ingeles Ikasketetako I. mailako ikasgelan (euskal herri txiki bat dirudien mikrokosmosean), ikasleatariko batzuei erregutu behar izan diet aurtan, nire aurrean, behintzat, euskaraz hitz egin dezatela

⁴ Ibon Sarasola (1997) eta Koldo Zuazo (2000).

⁵ Ibon Sarasola, Pello Salaburu, Josu Landa eta Josu Zabaleta (2007) *Ereduzko prosa gaur* <<http://www.ehu.es/euskara-orria/euskara/ereduzkoa/>>.

⁶ Ibon Sarasola, Pello Salaburu eta Josu Landa (2013) *Egungo testuen corpusa* <<http://www.ehu.es/etc/>>.

⁷ *Kiromantzidxa* (Joseba Sarrionaindia), Mikel Laboa, *Gernika Zuzenean*, Elkar, 1999.

(edo bestela esanda, gaztelaniaz hitz egin ez dezatela). Ikasgelatik kanpo, nahi badute, aire, baina ikasgelan ez, bederen. *Libertad de expresión* (adierazpen askatasuna) eskatu zidan ikasleetako batek orduan (eta arrazoiarekin, ziur aski, nor naiz ba ni, atso erretxina, eskola hasi bitartean edo saioa hasita, euren artean zein hizkuntzatan hitz egin behar duten esateko?). Hala ere, zer esango dut ba?, milaka urtekoa baino etsipen zaharrago batek hartu ninduen: *ehortzi ezazue ene bihotza Wounded Kneen*⁸ esan nuen nire artean.

Gramatikaz ari nintzen, baina, eta Wounded Kneen ehortzi arteko urteetan (ez asko beharbada), gramatikaren gorabeherak dagozkit niri, eta horregatik, ikasgelako gazte jendeari ere azaltzen saiatzen naiz (bermeotarrari, gasteiztarrari, azpeitiarrari...) gauza bat dela gramatika arauemailea eta beste bat, oso diferentea, gramatika teorikoa. Gramatika arauemaileari dagokionez, euskara batuan idatzi behar dutela, kitto, eta ez dakienak (eurek duten adinean, behinik behin) izan duela ikasteko astirik eta betarik. Horretarako, jakina, hiztegi batua zer den jakin behar da eta baita aditz batua zer den ere, adibidez. Alabaina, horrek ez du zerikusirik hizkuntzaren inguruko gogoeta zientifikoarekin. Halaxe esaten diet. Horretan diharduena bestelako gramatika da, gramatika teorikoa. Ez du hiztunen erabilera arautzeko inongo asmorik, Euskaltzaindiak bezalaxe, hiztunen (tartean euskaldunen) jakintza linguistikoa azaltzeko asmoa baino. Gramatika izena dute biek, baina izanaz dira diferenteak.

Deskribatzearekin ere ez da nahikoa teoriazale batentzat, nahiz eta gertara linguistikoak ere deskribatu deskribatzen dituen bere teoriaren argitara. Euskaltzaindiaren beraren gramatika ere arauemailea izateaz gain, deskribatzailea ere bada nolabait, azken batean gomendatzen dituen egiturak-eta, nonbaitetik atereak baitira, sarri askotan (idatzizko) literaturan eredugarritzat jotzen diren idazleen lanetatik, adibidez. Euskaltzaindiko Gramatika Batzordeak ibili luzean egin dituen lan esanguratsuetan, esate baterako, *Euskal Gramatika Lehen Urratsak (EGLU)* izeneko I-etik VII-rako ale guztietan, edo *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna* liburuan, halaxe jardun dute batzordekideek.

Erabiliko zituen irakurleak gramatika horiek zalantza hau eta hura argitze-ko, eta ezagunak izango zaizkio dagoeneko. Aldiz, ez dira horren ezagunak izango irakurlearentzat, iniziatua ez bada, bederen, José Ignacio Hualde eta Jon Ortiz de Urbinaren *A grammar of Basque* eredugarria edo Rudolf de Rijk

⁸ Stephen Vincent Benét amerikar idazlearen *American Names* poemaren azken lerroa da aipamena: *I shall not be here / I shall rise and pass / Bury my heart at Wounded Knee*. Azken lerro horrek izena eman zion geroago Dee Brownen *Ehortzi ezazue ene bihotza Wounded Kneen* izenburuko lanari, Estatu Batuetako armadaren eta lakota indiarren arteko *Wounded Kneeko sarraskia* (1890) oroitarazten duenari. Amerikar indiarren azken guda izan zen hura. Bestalde, lakota sioux hizkuntzetako bat da, eta *Ethnologuereen* arabera (SIL 2013), sei bat mila hiztun ditu gaur egun, populazio etnikoa 20.000koa den arren.

euskalari handiaren *Standard Basque* eklektikoa. Lehen ingelesez irakurtzen dakien edozein euskaldunek erabil dezake, EGLUrekin batera; zailxeagoa da bigarrena: irakurlea aditua ez bada, gramatikan zaletua behintzat izan behar da de Rijkenari ekiteko. Lehen darabilte euskararen egituraren zirrikituak ulertu nahian dabiltzan kanpotar hizkuntzalariak —bertokoek ere bai, noski—. Bigarrenak asmo itxuraz pedagogikoa du, baina oso urruti dabil euskara ikasteko gramatika bat izatetik. Oso bestela, batez ere gramatikan gutxieneko eskarmentua dutenek gozatuko dute de Rijken gramatikari intuizio finaz.

Eta garaian garaikoa: Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Institutuak *Sareko Euskal Gramatika* ere jarri du euskaldunen eskura sarean, Pello Salaburu, Patxi Goenaga eta Ibon Sarasolaren zuzendaritzapean.⁹ Egitasmo handi samarra gurea bezalako hizkuntza txiki batentzat. Ez da sareko lehen euskal gramatika, adinez nagusiagoa den ahizpa txikiago bat baitu, Itziar Lakarena, ingelesez mintzo dena.

Ikusten denez, gramatika teorikoa ez da aukera bakarra; herritar xeheak gogoan erabili ohi duen gramatika arauemailea edo gramatika deskribatzaile hutsa ere badaude. Badira, beraz, *beste gu*, eta gu ere bagara *beste*.

1.3. *Heuscara, habil mundu gucira.* (Euskara eta parametroak)

Bernard Etxepareren (1545) *Linguae Vasconum Primitiaen*, bada *Contrapas* izeneko poema bat, Oskorriri esker,¹⁰ lehen ahapaldietan, gutxienez, han eta hemen ezaguna dena eta herrietako jaietan eta lagun artean kantatu ohi dena. Ahapaldien artean, ez da horren ezaguna azkena, hauxe:

Eceyn ere lengoageric

Ez francesa ez berceric

Oray eztaerideyten

Heuscararen pareric.

Ulertzekoa zen, eta oraindik ere bada, Etxepareren aldarria (eta nahia). Gure jarduera zientifikoan, alabaina, desfiorik handiena ez da *euskararen parerik ez erideitea*, erideitea baizik (unibertsaletik gutxi izango luke osterantzean gure gramatikak). Euskara ez da beste giza hizkuntza bat besterik, adibidez, frantsesa den bezalaxe, eta giza hizkuntza den aldetik, harrigarria litzateke gainerako hizkuntzen artean parerik ez izatea. Dena dela, euskarak

⁹ Pello Salaburu, Patxi Goenaga eta Ibon Sarasola (2011-).

¹⁰ *Kontrapas* (Bernard Etxepare), Oskorriren estudioko bigarren albuma *Mosen Bernat Etxepare 1545*, CBS, 1977.

badu bere izatea eta izate horrek bereizten du frantsesetik eta beste hizkuntza askotatik, alderdi batzuetan, bederen. Horregatik, ez da horren buruga-bea pentsatzea euskararen parerik ez dela. Bada, gure gramatikak bi alderdi horiek uztartzen ditu: euskarak gainerako hizkuntzekin partekatzen dituen alderdi unibertsalak, batetik, eta berezkoak eta idiosinkrasikoki dituenak bestetik.

Bestalde, Goenagak gurera ekarri zuen gramatika unibertsala eta euskararen alderdi unibertsalak erakutsi zizkigun, baina beste hizkuntzalari batzuek alderantzizkoa egin dute eta euskararen berezitasunak erakutsi dizkiote unibertsoari, Etxepareren lelo errepikakor baina aldagarria jarraituz ziur aski:

Heuscara ialgui adi cāpora

...

Heuscara ialgui adi plaçara

...

Heuscara ialgui adi mundura

...

Heuscara habil mundu gucira

Lelo hori jarraitu zutenetako bat Jon Ortiz de Urbina izan zen *Some parameters in the grammar of Basque*¹¹ argitara eman zuenean. Ortiz de Urbinaren doktore tesi hark laurogeiko hamarkadan indarrean zegoen eredu teorikoa hartzen zuen oinarri, *Hatsarreak eta Parametroak* zeritzan eredu teorikoa, hain zuzen —horretan hasi nahi duenak Xabier Artiagoitiaren eskuliburu¹² du eskura—. Horregatik, tesi hartan, parametroez ziharduen Jon Ortiz de Urbinak euskararen gramatikatik abiatuz. Parametroen bitartez hizkuntzen arteko aldakortasuna erakusten da gramatika teorikoan (eta hatsarreen bitartez unibertsaltasuna). Har dezagun parametro aski ezagun bat, Ortiz de Urbinak bere tesian zerabilena: ergatibotasuna. Parametro hori ikertzaileen kuttuna izan da denbora luzean zehar, gurean zein kanpoan. Orobat parametro horrek itzal handia du eta beste parametro batzuek ez bezala, sona du jendartearen. Zaldieroak badu pertsonaia maitagarri bat, Mitxelena XVI., Yoda maisuarekin batera euskararen jagolea dena Iratiko Boli Dorretik. *Ergatiboa* gora eta behera ibiltzen dira bi pertsonaiak zinta gogoangarri asko eta askotan, *k* bai, *i* bezain txikia itxura guztien arabera, baina pasiorik-eta asalduenak sor ditzakeena.

¹¹ Jon Ortiz de Urbina (1989).

¹² Xabier Artiagoitia (2001). Inbidia gutxi dio eskuliburu horrek nazioartean gaiaren inguruan idatzi diren beste eskuliburu batzuei, eta *think global-act local* leloari justizia egiten dion erakusgarri on horietako bat da. Bejondeigula!

k, *i* bezalaxe kasu marka bat da, eta *ikusi* bezalako aditz iragankor baten subjektuari ezartzen zaio euskaraz, adibidez, *ni-k Jon ikusi dut* perpausean. Bada, *k* horretaz ari gara, hain zuzen. Horrexeri deritzogu ergatiboa. Aldiz, aditza iragangaitza denean, *etorri* esaterako, orduan, ez zaio subjektuari *k* ezartzen, zero marka morfologikoa baino, *ni Jazzaldian egon naiz* perpauseko *ni* subjektuari bezala. Ageriko marka morfologikorik ez duen kasu horri *absolutiboa* deritzogu, eta aditz iragangaitzeko subjektuari ez ezik, aditz iragankorreko osagarriari ere ezartzen zaio, *Jonek ni ikusi nau Jazzaldian* perpausean adibidez *ni* osagarriari ezartzen zaiona. Ergatibo kasuaren *alter egoa* da absolutiboa.

Ergatiboa ezagun samarra da, eta herritar xeheak badaki (are gehiago euskaraz ikasten ari bada) euskaraz badela, baina frantsesez edo gaztelaniaz, adibidez, ez. Frantsesez eta gaztelaniaz modu berean markatzen dute subjektua, aditza iragankorra edo iragangaitza izan. Badago desberdintasun formal bat, beraz, eta desberdintasun formal horrek bereizten ditu hizkuntzak (euskaraz vs. frantsesa eta gaztelania, kasu honetan). Ez da erideiten, bada, euskararen parerik. Alabaina, frantsesez eta gaztelaniaz ergatiboaren arrastorik ez badago ere, euskarak horren berezkoa duen hori (horren gurea, eta gurea baino ez, dirudien hori) badago beste hizkuntza batzuetan, hala nola, georgieraz edo inuiteraz, bi hizkuntza besterik ez aipatzearren —ez *k* bera, jakina, gutxienekoa baita zein itxura morfologiko hartzen duen gauza linguistiko batek, bere izate abstraktua baino—. Hortaz, ezin izango genuke esan *ez da erideiten ezein ere lengoagerik*, zeren euskara frantsesetik bereizten den hein berean, inuiterarekin bat egiten du. Eta inuiten eta euskaldunen artean inongo ahaidetasun historiko edo genetikorik ez dagoen arren, ezta inuiteraren eta euskararen artean ere, ergatibotasunaren parametroak eta parametro horrek hizkuntza bie esleitzen dien balioak, hots, ergatiboa izateak, tipologikoki bederen, batu egiten gaitu euskaldunak eta lurralde izoztuetako biztanleak.

Parametroez ziharduen Ortiz de Urbinak bere liburuan, eta kanpora, plazara, mundura, mundu guzira eraman zituen euskara eta euskal gramatikaren berezitasunak. Euskara munduko hizkuntzen artean jarri zuen; gramatika unibertsalaren barruko aldakortasuna euskaratik begiratzen irakatsi zigun bertoko zein kanpoko hizkuntzalariei. Goenagaren liburuak gramatika unibertsala ekarri zuen gurera; Ortiz de Urbinarenak gure gramatika eta bere parametroak eraman zituen unibertsora, eta unibertsoak badu harrezkero gure berri.

1.4. *Excursioa* edo txikion paradoxa: euskara munduratzeko, munduko zein hizkuntza?

Contrapasak euskara munduratu zuen, ez baita alperrik Etxeparerena lehen euskal liburu idatzia izatea. Goenagarena ere euskaraz idatzita zegoen, euskaldunentzat idatzita baitzegoen eta gramatika unibertsala euskarara ekar-

tzeko asmoa baitzuen. Ortiz de Urbinarena, aldiz, ingelesez idatzita zegoen, euskarari eta euskal gramatikari buruzkoa izan arren. Euskara munduratzeko, beraz, euskara edo... ingelesa? *To be or not to be. That is the question!*

Literatura idazleek ez dute halako paradoxarik (ustez), Etxepareren ahalegina ez baitzen alferrikakoa izan: ez dugu espero Harkaitz Canoren hurrengo nobela euskaraz baino izatea. Izenburua, beharbada, ingelesez egon liteke berriro ere, baina ez testua bera, sortzez bederen. Etorriko dira geroago sortzez euskaraz idatzitako testu bikain hori beste hizkuntza batzuetara itzuliko dutenak, *Twist* gaztelaniara itzuli duten bezala. Euskaraz nahiz gaztelaniaz erregalatu dut nik nobela hori eta ingelesez noiz argitaratu zain nago orain, lagun bati bidaltzeko.

Baina euskal gramatikariok euskara txikia erabili behar al dugu edo ingeles erraldoia, euskararen inguruan jardun eta euskara munduratzeko? *Twist* ingelesezkoa noiz jasoko zain dagoen lagunak, hizkuntzalaria denak baita ere, ez du zalantzarik: euskara eta ingelesa, biak. Eta inguruan ditudan lankide estimatuek, euskal hizkuntzalariek ere halaxe egin izan dute: biak erabili dituzte euren zeregin zientifikoan eta biak darabiltzate oraindik ere (belaunalditik belaunaldira ezberdintasunak antzematen dira, bai, jakina, baina *grosso modo* hitz eginez, Ortiz de Urbinaren eta geroagoko belaunaldietan halaxe izan da eta bada gaur egun ere).

Konforme, darabiltzagun biak beraz. Euskal hizkuntzalari horiek, baina, beste ñabardura batez bereizten dute bi hizkuntzen erabilera: euren aurkikuntza akademiko handiak, halakorik badago bederen, nazioarteko berehalako zabalkundea eskatzen dutenak, ingelesez argitaratzen dituzte, eta ondoren, eta ondoren bakarrik (edo bateratsu), euskaraz ematen dituzte argitara. Adibidez, *k* ergatiboa aipatu dut gorago. Itziar Laka izan da urteetako lana *k* horri eskaini dion hizkuntzalari euskalduna (eta ni bezala emakumea, diodan bide-nabar). Euskal *k* hori ezaguna da munduan, besteak beste, bere lanari esker. Laka adibide gisa baino ez darabilt: bere lan gehien-gehienak ingelesez idatzita daude. Nolatan hori gero? Bada, arrazoi soziologikoak tarteko (Massachusetts Institute of Technology MITikoan izan zen ikaslea Laka, Noam Chomskyren sail berean), bere plaza mundua izan baita eta ez nahitaez Euskal Herria. Eta horixe da zientzialarien, eta hortaz, orobat, hizkuntzalarien patua: plaza mundua da eta ez Bilboko Plaza berria bakarrik.

Luze joko luke honetaz idazten jarraituko banu, eta *excursu* labur baten mugak gaindituko lituzke. Hizkuntzalaritzan eta zientzian, oro har, *lingua franca* nagusi bat dago gaur egun, ingelesa, eta gustatu edo gustatu ez, hizkuntza horrexetan hitz egin eta idatzi behar da munduko hainbat eta hainbat zokotako hizkuntzalariekin, zientzialariekin eztabaidatu nahi izanez gero. Ez dago besterik, beraz: berton euskara euskaraz, kanpoan, euskara ingelesez, ezinbestean.

1.5. Parametroak: gailurretik gainbehera

Parametroak azaltzerakoan, ergatibotasuna aipatu dut gure parametrorik-eta ezagunena (eta kuttunenena) delako, baina etzazuela pentsa hori denik ulertzen errazena gaian aritua ez den pertsona batentzat. Hitz hurrenkera, beste parametro bat aipatzearen, printzipioz askozaz ere begi-bistakoagoa da. Konpara ditzagun horri dagokionez, euskara eta gaztelania: adibidez, *porrusalda jan (dugu)* diogu euskaraz eta *(hemos) comido purrusalda* gaztelaniaz. Euskaraz ari garela, *jan* aditza *azkenik* jartzen dugu, hots, jaten dugunaren atzetik (osagarriaren eskumatarara) eta gaztelaniaz eta frantsesez, aldiz, *lehenik* jartzen dugu, jaten duguna baino lehenago (osagarriaren ezkerretara). Aditza sintaktikoki *buru* bat denez, gaztelania *buru-lehena* dela diote sintaxilariek eta euskara, berriz, *buru-azkena*.¹³ Hau da, teknikoki *buru parametroa* deritzanak, gorago hitz hurrenkera deitu dugunak, hizkuntzei esleitzen dizkien bi balioak dira euskaraz eta gaztelaniaz ditugun horiek. Buru parametroa Jon Ortiz de Urbina-*n*aren tesiko gaitarik bat izateaz gain, beste ikertzaile batzuen gai gogokoena ere izan da, Arantzazu Elordietarena¹⁴ adibidez, eta eztabaida handia ekarri duena, gainera, bazter hauetara.

Halakoxe parametroak ziren laurogeiko hamarkadakoak, eta euren inguruan gogoeta egin nahi duenak, ingelesez badaki, Mark Bakerren *The atoms of language*¹⁵ (hizkuntzaren atomoak baitira Bakerrentzat parametroak) liburu eder bezain iradokitzailea irakur dezake. Ez da beharbada Steven Pinkerren *Hizkuntzaren sena*¹⁶ bezain ezaguna, baina hizkuntzen arteko aldakortasun sintaktikoan dihardugunok (neronek, bai, behinik behin) benetan miresten dugun liburua da. Bestela ere, hizkuntza-zaleek ez ezik, uda sasoi honetan bidaiatzea ere gustuko dutenek Beatriz Fernández eta Jon Ortiz de Urbina-*n*aren eskuliburu¹⁷ izan lezaketek bidaide, parametroen inguruko bidaia baterako.

Parametroek goiena jo zuten garai hartan. Hatsarre unibertsalak genituen (zeharo sinpleak bai, baina aldagaitzak) eta hizkuntzen arteko diferentziak pa-

¹³ Euskara *buru-azkena* (eta *aditz-azkena*) dela esateak ez du esan nahi bestelako hurrenkera sintaktikorik ez dagoenik, noski. Hurrenkera hori aldatu egin daiteke eta *de facto* aldatu egiten da sintaxian, ezer arrotzik eta ez-gramatikalik sortu gabe (*ay, Altube...*). Sintaxitik kanpo ere, diskurtsoaren antolaketa, bestelakoak dira oinarritzko hitz hurrenkera hori aldatzeko zioak. Hortaz, hemen diodanak ez du printzipioz talka egiten (literatura) diskurtsoaren jariatortasunaz kezkatu-*r*ik dauden hizkuntzalarien iritziaren kontra (Ibon Sarasolaren iritziaren kontra, esate baterako, *Obabakoak 25 urte*, Bilbon, 2013ko ekainaren 19an emandako hitzaldian).

¹⁴ Arantzazu Elordietara (2001). Parametro honen gorabeherak ezagutzen ez dituenak Xabier Arriagoitiaren (2001) edo Beatriz Fernández eta Jon Ortiz de Urbina (2007) eskuliburuak balia ditzake hastapenetan. Gaian aritua denak, berriz, Aratek, Arriagoita eta Elordietaren (2008) liburura jo lezake.

¹⁵ Mark Baker (2001).

¹⁶ Steven Pinker (2010).

¹⁷ Beatriz Fernández eta Jon Ortiz de Urbina (2007).

rametroei egozten genizkien, hau da, goian aipatu ditugun ergatibotasuna edo buru parametroa bezalakoei. Harmonia onean bizi ginen hizkuntzen arteko aldakortasun sintaktikoa unibertsaltasuna beste maite genuenok. Parametroak ere unibertsalak zirela, halaxe uste genuen. Esate baterako, pentsatzekoa da ergatibotasunaren parametroa unibertsala dela (ez euskararena bakarrik) eta hortaz, jaiotzekoa. Besterik da gero sortzeko makinerian dakargun parametro unibertsal hori, umeak hizkuntza jabekuntza prozesuan zehar finkatu behar izatea batera edo bestera, bere inguruko harreman linguistikoetatik gutxieneko estimuluak jaso eta gero. Parametroak finkatzea diodanean, bere balioak esleitzeaz ari naiz, alegia, hizkuntza ergatiboa bai edo ez, buru-lehena bai edo ez... Bestalde, bistan denez, parametroak bitarrak dira, hots, bi balio dituzte, eta balio horietako bakoitza da jabekuntzan zehar zehazten dena. Izatez, umeak ezer gutxi *ikasi* behar du hizkuntzaz jabetzeko, ergatiboa da, bai edo ez, aukera bi horietatik bat hautatzen du umeak bere jatorrizko hizkuntzaren jabekuntza prozesuan zehar. Orobat, sinpleak ere izan behar dira parametroak (aditza lehenik edo azkenik finkatzea bezain sinplea), umeak erraz ikasteko. Alabaina, itxuraz sinplea denak ohi duen legez, bata bestearen atzetik dakartza askotariko ondorioak, eta parametroekin ere halaxe gertatzen da, bata bestearen atzetik baitakartzate askotariko ezaugarri morfosintaktikoak (*clusterrak* deitzen diegu, ingeles hitza mailegatuz). Parametroak, gainerakoan, ez dira, asko izango. David Lightfootek¹⁸ dioenez, hizkuntza jabekuntzaren ikuspuntutik, hogeita hamarretik berrogeira bitartean egon daiteke zentzuzko parametro kopurua. Litekeena da, azkenik, parametroak hierarkien bitartez¹⁹ antolaturik egotea. Huraxe zen gutxi gorabehera laurogeiko hamarkadan pentsatzen zena, eta oraindik ere parametroen alde dihardutenek uste dutena. Gailurretik gainbeherara, baina, pauso oker bat besterik ez dago: parametroek behaztopa egin zuten teorian, eta parametroen teoria gainbehera etorri zen.

Asko eta askotarikoak izan dira parametroek pairatu behar izan dituzten kritikak. Zorrotzenak (eta parametrozaleontzat, gazi-goxoenak) Frederick J. Newmeyerren²⁰ eskutik etorri dira. Aleturik aurkituko ditu irakurleak, banan-banan emanik haren lanetan. Adibidez, Newmeyerren iritziz parametroak ez dira lehenagoko ereduetan formulatutako arauak baino sinpleagoak. Arauez ari garela, ez dihardugu, jakina, Euskaltzaindiarenak bezalako arauak, alegia, hiztunen erabilera arautzeko proposatzen diren horiez; oso bestela, gramatika sortzailearen hasierako ereduetan, *Gramatika bideetan*-en garaian adibidez, hizkuntzaren muineko ezaugarriak zein ziren deskribatu eta azaldu nahian erabiltzen ziren formulazioez baino. Arauez osatutako aspaldiko eredu teoriko haiek hatsarre eta parametroen bitartezko beste eredu teoriko batez ordezkatu ziren denboraz, hatsarre eta parametroak, arauak baino sinpleagoak zirela-

¹⁸ David Lightfoot (1999: 295).

¹⁹ Ikus batez ere Mark Baker (2001).

²⁰ Frederick J. Newmeyer (2004, 2005).

koan. Printzipioz, zeinahi zientzian, sinpletasuna da hipotesi edo teoria bat lehenesteko irizpidea, eta halaxe da hizkuntzalaritzan ere (gramatika sortzailan, *azalpen mailako egokitasuna* deritzo, baina, ñabardurak ñabardura, sinpletasuna da irizpidea). Bada, Newmeyerrek oraindik ere arauak nahiago ditu, parametroen aldean.

Kritikekin segituz, Newmeyerren ustez, bitartasunaren erakusgarri gutxi dago morfosintaxian, ikusi besterik ez dago hizkuntza jakin batean dagoen genero, numero edo kasu kopurua, zenbait adibide ematearren. Bitartasuna, beraz, ez da horren begien bistakoa, bere iritziz, ezta *Egitasmo Minimalistan*,²¹ hots, gramatika sortzailaren barruan gaur egun indarrean dagoen egitasmo teorikoan ere, aukera parametrikokoak bitarrak izatea.

Kritikarik dibertigarrienak, beharbada, darabilen doinuarengatik, parametroen *ugaltze* azkenik gabearekin du zerikusia. Gorago David Lightfooten iritzia gogora ekarriz esan dugunez, parametroak hogeita hamarretik berrogeira bitartean izatea espero dugu, baina Lightfootek berak dio *Linguistic Inquiry* aldizkariako ale bakar batean (hau da, MITeko hizkuntzalaritza aldizkarian, munduan diren aldizkaririk ospetsuenetako batean), batez beste hogeita hamar-berrogei parametro proposatzen direla. Horietako batzuek zerikusia dute, Newmeyerren iritziz, guk izkribu honetan mintzagai izan dugun ergatibotasuna bezalako parametro orokorrekin eta nolabait lotzen zaizkio parametroen benetako izpirituari, baina beste asko eta asko ez dirudi hizkuntza bakar baten mugetatik oso aparte ibiliko direnik, eta nekez har daitezke, beraz, parametrotzat. Newmeyerrek gogoeta baten ostean dio munduko hizkuntzen, hizkeren eta idiolektoen (norbanakoaren hizkera idiosinkrasikoaren) gramatikak azaltzeko milaka (edo milioika!) parametro behar badira, ez dirudiela oso txalagarria parametro horiek guztiak jaiotzeko gramatika unibertsalari egotea. Eta gaineratzen du oraindik ez dakigula umeak horrenbeste parametro ote dakartzan jaiotzez, baina postura egingo lukeela eboluzioak ez gaituela gizakiok horren modu jorian hornitu.

Ez dira hemen amaitu kritika guztiak, nahiz eta gainerakoak, denbora mugak tarteko, ez ditudan aipatuko. Eta tira, soka luzea ekarri du Newmeyerrek esandakoak. Irakurri besterik ez dago Ian Roberts eta Anders Holmberg²² hizkuntzalarien erantzuna. Dena dela, ez ezazue pentsa erantzun gabe gelditu zenik Newmeyer ondoren.²³ Saiatua gizona. Traineruen estropada garaian sartuta gaudenez, gogoratzen iaz dopina dela eta ez dela (bai, arraun jardunean ere bai), Jose Luis Kortak, Kaikuko entrenatzaileak eta Urdaibaiko presidente Josu Zabalondok bata bestearekin izandako hika-mika azkenik gabe hartaz? Bada, antzeko zerbait. Ez, horren kortatarra, edonola ere!

²¹ Noam Chomsky (1993, 1995).

²² Ian Roberts eta Anders Holmberg (2005, 2010).

²³ Frederick J. Newmeyer (2006).

Dena dela, ez dira Newmeyerrenak kritika bakarrak,²⁴ ezta Roberts eta Holmberg ere parametroen teoria dagoen-dagoenean²⁵ edo nolabait berrinterpretaturik defendatzen duten bakarrak. Eta nago partida oraindik ez dela amaitu: Bilbon, hilabete dela egin zen *Towards a Theory of Syntactic Variation* nazioarteko jardunaldia duzue horren lekuko.²⁶ Ostean, ez dakit zertan gelditu zen ustezko dopin kasu hura: traineruen estropada bat amaitu orduko, hurrengo izan arte begiak ixtea erabaki nuen aspaldi. Hori bai, Kortak (hitzez hitz) jo eta fuego segitzen du, gaur bertan irratsaio bateko tarte batean aditu dudanez. Nolanahi ere, estropadak nekez (oso nekez) bada ere, abandona nitzake beharbada. Aldiz, parametroena ez da erraz abandona nezakeen partida. Dopinaren beharrik ez dut, gainera. *Lankoholikook* horixe dugu, dependentziak ez digu bakerik ematen (ezta gramatikak eta *rock and rollak dirurik emanen* ere).²⁷

1.6. *Negua joan da ta*²⁸. Makroparametroetatik mikroparametroetara

Negu luzea izan da aurtengoa. Uztailaren atariraino heldu da ia, udaberriaren arrastorik gabe. Uztail hasierara arteko azterketa garai are luzeagoan, neguko botatzarrak eraman ditut nik fakultatera (eta jaka, kreailera goraino itxia). Halaxe neurtu daiteke neguaren luzera, bota-tzarren erabileran, eta udararen hasiera, berriz, txankleta koloretsuen agerraldi axolagabea. Lagunartean, ekonomilari-arraunlari bat badugu, txankleta janzten goiztiarrena dena. Begiraiozu oinetara eta jakingu duzu: bai, negua joan da ja.

Eta udan, bidaiatzeko ohitura temosoa dugu paraje honetan. Lekurik-eta exotikoenetara joaten dira batzuk (Hawaiko Banzai Pipelineran olatu erraldoiez gozatzeraz batzuk, Katchenjungako gaintara besteak, Saharako basamortura hurrenak...). Zenbat eta urrutiago eta ezezagunago, hobeto. Beste batzuek, aldiz, hurbilekoa nahiago dute desafio handietarako (Mundaka, Txindoki, Bardea...). Etxean baino hobeto non bestela? Bada, parametroen bila dabilenak ere antzeko bi aukerak ditu: olatuak gogoan izanez gero, adibidez, bizkarzorroa bete, surf-oholak prestatu eta Pipelineran hegaldak daitezke, edo surf-oholak furgoneta herdoiltzen hasian sartu eta hamaiketako zilar paperean bilduta,²⁹ Mundakara joan eguna argitu orduko.

²⁴ Cedric Boeckx (2011) adibide bat ematearren.

²⁵ Mark Baker (2008) gomendatuko nioke jakin-mina duen irakurleari.

²⁶ *Towards a Theory of Syntactic Variation*, Bilbo, Bizkaia Aretoa, UPV/EHU, 2013ko ekainaren 5-7a. *Basdisyn (Basque Dialect Syntax)* eta *Gogo Elebiduna* ikerketa taldeek elkarlanean antolatutakoa topaketa. Traineruen estropadekin nahikoa ez duenak topaketa hartako hitzaldien bideoetako batzuk ikus ditzake sarean <http://basdisyn.net/TTSV13/>.

²⁷ *Ta zer ez da berdin*, Hertzainak, Hertzainak, Soñua, 1984.

²⁸ *Negua joan da ta*, Zea Mays, Era, Bonberenea Ekintzak, 2010. Gure klasikorik modernoena.

²⁹ Igaro ziren aspaldi *Altos Homoseko* beharginek, Sestaora bidean trenean, ogitartekoa *periodiko* paperean bilduta zeramaten garaiak (eta igandean San Mamesera). *So we are history... (Tears dry on*

Pipeline-zaleak dira Bakerenak bezalako parametroak esploratzen dituzten ikertzaileak: munduko hondartzak, munduko hizkuntzak dituzte jomugan, eta oso urrutiko paradisu (linguistiko)etara heltzeko gai izan dira. Ergatibotasunaren parametroa aipatu dut goian: hizkuntza ergatiboek Lakandona oiha-nera eraman zaitzakete, Groenlandia (des)izozten hasira, Australiako Ipar Lurraldera... Eta hitz hurrenkerari dagokionez, hitz hurrenkera buru-lehenak gaztelaniaren eremu handira eta ingelesaren eremu are handiagora eramango zaitu, baina baita Nigeria ezezagunera edo Ruanda odolustura ere. Aldiz, hurrenkera buru-azkenak Japonia enigmatikoaren eta Turkia iradokitzailearen sekretuak erakutsiko dizkizu. Ez duda egin: *terra ignota* zapaldu dute parametro-zaleek (eta *mare ignotum* zeharkatu surflariak). Zeresanik ez, beste parametro batzuk arakatu direnean, hala nola, polisintesia³⁰ edo subjektu isilaren parametroa,³¹ oso parametro ezagun bi besterik ez aipatzearren.

Aldiz, Mundaka-zaleak bestelako surflariak dira. Bertatik bertara dabilzkizu olatu bila, eta Mundakara erromesen debozio berarekin doazen arren, sarri askotan ez dira horren aparte ere ibiltzen: Gorrondatxe (Azkorri), Barinatxe, Arrietara, Atxabiribil, Meñakotz... Bertoko hondartzeekin egiten dute amets eta bertoko hondartzetan esnatu eta lokartzen dira.

Bada Mundaka-zaleak dira parametroen bilaketa etengabea, mundura ez, etxera begiratzen dutenak; handitasunari ez, txikitasunari erreparatzen diotenak. Hala, hizkuntzetara gabe, hizkeretara hurbiltzen dira; hizkuntzatik hizkuntzara gabe, hizkeratik hizkerara dabilta, surflariak olatutik olatura nola. Bertoko hizkerak dituzte gustuko, bertoko hondartzak, eta txikitasunean diferentziarik sotilenak antzemateko gai dira, profano baten begietara ezinezkoa dena antzemateraino. Mundaka-zale horietako bat da Richard S. Kayne new-yorktar irakaslea, eta *makro*parametroen aldean (*à la* Baker), *mikro*parametroak nahiago ditu.³² Izatez, bi deituren arteko diferentziak ez dagozkio bakarrik aztergaiari berari, hots, hizkuntzak aztertzeari makroparametroez ari garela edo hizkerak mikroparametroekin lan eginez gero. Alabaina, aztergai bat edo bestea hautatzeak badu bere garrantzia.

Kaynek ez du, jakina, bertoko hondartzez hitz egiten, esperimentuez baino.³³ Aldakortasuna aztertu nahi dugu? Ados, bada, sintaxi mikro-konparatzailea egin dezagun eta bata bestearekin konpara ditzagun hizkuntza bateko hizkerak. Horixe izango da sintaxi konparatzailearen barruan, kontrolatutako

their own, Amy Winehouse, Nickolas Asholford eta Valerie Simpson. *Back to Black*, Amy Winehouse-
seren estudioko bigarren albuma, Island, 2006).

³⁰ Mark Baker (1996, 2001).

³¹ Noam Chomsky (1981) edo Luigi Rizzi (1982). Parametro honen inguruan zabalkunde liburu
benetan ederra idatzi du Maia Duguine (2010).

³² Bien arteko konparaziorako, ikus Baker (2008), 25 oin-oharrean ere aipatu dudana.

³³ Richard S. Kayne (2000: 8; 2005: 8).

esperimentu batetik gertuen egon daitekeen saio zientifikoa. Hizkuntzekin esperimenturik egin ahal balitz, halaxe jokatuko luke sintaxilariak, Kayneren ustez: hartu hizkuntza bat, alda iezaiozu bere ezaugarri behagarrietatik bakar bat eta azter ezazu ea horren ondorioz beste ezaugarririk aldatu ote den. Aldatu bada, orduan aldatu duzun ezaugarri hori eta ondorioz aldatu den beste ezaugarria parametro abstraktu batez loturik egongo dira.

Hizkerai erreparatzea ez da berritasun bakarra iker eremuan. Parametroak modu batera edo bestera interpretatzean dago Baker eta Kayneren arteko aldea. Kaynek (eta beste hizkuntzalari batzuek, jakina) modu berezi batez interpretatzen ditu parametroak, eta interpretatzeko modu hori *Borer/Chomsky aierua* esapidiaz da ezaguna (ingelesez *The Borer/Chomsky conjecture*) —Bakerrena da deitura—. Deiturak Hagit Boreren eta Noam Chomskyren abizenak jasotzen ditu, parametroaren kontzepzio hori Boreri zor zaiolako batetik eta bestetik Chomskyk Egitasmo Minimalistan jaso zuelako ondoren.³⁴ Borer/Chomsky aieruaren arabera, aldakortasunaren parametro guztiak izatez hiztegiko aleen (funtzio buruen) ezaugarri edo tasunen diferentziei dagozkie. Alperrik saia ninteke orain ematen orain arte saihestu ditudan xehetasun teknikoak. Aditza burua dela esan dut gorago, baina burua oro har zer den ez dut azaldu ezta orain funtzio buruak zer diren argituko ere (Artiagoitiaren eskuliburura jo berriro ere). Dena dela, intuitiboki besterik ez bada ere, pentsa ezazue perpausak zuhaitz sintaktikoak direla (perpausak izatez, zuhaitz sintaktikoen bitartez irudikatzen ditugu gramatikariok) eta adabegietatik abarreztatzen direla. Bada, adabegi horietako batzuetan, aditza bezalako buru lexikoak daude, hots, esanahia dutenak (izena eta adjektiboak dira beste buru lexikoetarik batzuk); eta beste adabegi batzuetan, funtzio buruak daude, izan daitezke denbora edo aspektua, adibidez, eta aldakortasun sintaktikoa inon egotekotan, funtzio buru horien eta eurekin harremanetan dauden aleen ezaugarri edo tasunetan dago.

Gure izkribu honi dagokionez, nahikoa du irakurleak, beharbada bidaiari nekatzen hasia denak, ulertzearekin euskara, inuitera edo georgierarekin edo auskalo zein hizkuntza exotiko edo ezagunekin edo auzoko gaztelania edo frantsesarekin konparatu beharrean, mendebaleko eta erdialdeko euskara konpara ditzakegula, nafar-lapurterra eta zuberotarra, eta abar. Hizkuntza baten barruko hizkerak, euskararen barruko euskalkiek ezaugarri askozaz ere gehiago partekatzen dituzte, hiztegia neurri handi batean bera delako, eta horrek aukera ematen digu gramatikarioi aldakortasunaren ardatzak xehetasun miragarriaz arakatzeko, mikroparametroei esker *negua joan da ta*.

Intermezzo. Maitasunaz, arreta fokatuaz eta gramatikarien adikzioez (Johannes Bhramsen Intermezzoa A nagusian, Op. 118, 2 zkia. Radu Lupuk joa.).

³⁴ Hagit Borer (1984) eta Noam Chomsky (1993, 1995).

Estasia, indarra handitzea, hiperaktibotasuna, lo galdua, goserik eza, estutasuna eta adikzioa, horiexek dira beste batzuen artean, Helen Fisher³⁵ antropologo amerikarraren iritziz, maitasun erromantikoaren zantzuak. Maitasunak gaixotzen gaitu, adikzio saihestezineko mendeko bat bihurtzen (zaldia izan ezean, metadona eske dabilen heroinomanoaren antzo). Maitea, ajea eta sendabelarra. *Nire iparra, nire hegoa, nire eki eta mendebala*.³⁶ Ez da unibertsoan gure maitea besterik. Hari ematen diozu arreta, arreta osoa, eta ez da ez nekerik ez ilunik: argitasun itsugarriak hartzen zaitu eta itsutasun argizatuan, maitea baino ez da. Horregatik, maiteari (edo gogoan iltzatutako bere aztarnari) begiratzen diozu, beste inoren begietara ezin ulertuzkoa (eta bidenabar, jasangaitza) den lilura itsuarekin. Unai Iturriaga bertsolari jenialak halaxe azaltzen zuen 2008ko Bizkaiko txapelketaren finalean:

*Gaur itzartu naiz normala baino askoz be lehenago
egia esan bart lotan ordu asko ez dot igaro
gorputza nekatu arren burmuina joan da harago
zeozer pasatu denaren seinalea dogu klaro
pausuan be sentitzen naz zentimetro bat gorago
kalean danak begira ta begiradak arraro
hori amargau piloa mundu hontan asko dago
pentsau gura dozuena, enamoraduta nago.*

Fisherrek *arreta fokatua* deritzo (ingelesez, *focussed attention*), maiteminduak bere maiteari baino arreta ez emateari, zeren maitearekin zerikusia duten doinu, e-mezu, gertakari eta beste hainbat gauza txiki fokuan jartzen baititu maiteminduak: ile xerlo matxinoa bekokitik behera dariola elurturik; arben-dola bi bekoki azpian etzanik, eskuin-ezker, zimur jostarietan abarreztatzen direla lokietarantz; kokots inguruko marka ia ikusezina iragan ezezagunaren lekuko... Fokuan jartzen duguna gauza txiki bat izaten da, eta gauza txiki horretan laburbiltzen da unibertsoaren handitasun kosmiko itogarria.

Hizkuntzalaria ere maitemindu bat da, hizkuntzarekin grinaz maiteminduta dagoena,³⁷ hizkuntzaren mendeko bat, fokua hizkuntzan jartzen duena, gauzarik-eta txikien eta itxuraz hutsalenean: adibidez, *i* izan daiteke fokatzen

³⁵ Helen Fisher (2004).

³⁶ Wystan Hugh Auden poeta ingelesaren *Funeral blues* izeneko poematik (1938) ateratako le-
rroa: *He was my North, my South, my East and West, / My working week and my Sunday rest, / My noon,
my midnight, my talk, my song; / I thought that love would last forever; I was wrong.*

³⁷ Bide batez, Wystan Hugh Audenek ber gauza esaten zuen poetez: *A poet is, before anything
else, a person who is passionately in love with language* (ikus Mendelson 2008). Gramatikariak, alajaina,
poetak izango gara azkenean!

duguna, morfema bat. Ezustean, *i* hori bihurtzen da gure lo galduaren arrazoia, eta loaldi akituan ameskaia. Esna-aldia ere, *i*-k berak dakarkigu, eta ez dugu *i*-rengan baino pentsatzen. *i*-k indarberritzen gaitu eta estasira eramaten; goserik ez dugu sentitzen *i*-rekiko harremanean, eta estutasuna (eta oinazea) sortzen digu *i*-rengandik aparte egon behar garen denbora tarte infinitesimalak.

Dopamina, norepinefrina eta serotonina, horiexek omen maitasun erromatikoaren osagai kimikoak, eta osagai horiexek, dagozkien mailetan, erakutsiko lituzke hizkuntzalariaren garun maiteminduak, gure garunak, Fisher antropologo amerikarrak bere esperimentuetako gaitzat hartuko bagintu.

II. Atala. *i* edo adikzio baten anatomia

2.1. *i* izatearen garrantzia³⁸

Adikziora eraman gaitu zientzia-bideak eta adikzioa da gure bizibidea. Hizkuntzaren mendeko honek hizkuntza ale txiki batean jarri du fokua, hara: *i* da, morfema bat, eta datiboa deritzo.

Datiboa, ergatiboa bezala, kasu marka bat da, baina ez da, beharbada, ergatiboa bezain kuttuna euskaldunentzat, ezta ezaguna ere. Mitxelena XVI. aren ardura eta debozioa ere ez du datiboak merezi, ergatiboak baino. Ulertzekoa da. Ez dirudi horren gurea, datiboa non-nahi, edozein hizkuntzatan aurki daitekeelako, ergatiboa ez bezala, eta euskaldunok izkin egiten diegulako gure bereizgarriak ez diren gauzei —izatekotan, izan gaitezen diferente—. Eta bai, diferentziak badu garrantzia, egia da: homogeneizazio eta globalizazio menderatzailearen aurrean, heterogeneotasunak mendekatzailearen xarma du. Hori ukatuko duenik ez dago. Dena dela, batasuna ez da halabeharrez homogeneizazioaren ondorengoa; batasuna berezkoa izan daiteke, erraietan darabaguna, gizakiak izateari zor dioguna. Eta orduan, *i* arakatzek ez ditu bakarrik euskararen ezkutuko zirrikitu eta tolesdurak erakutsiko, giza hizkuntzarenak baino; *i*-n arreta jarri eta bere izatea ulertzek ez gaitu euskaldunago egingo, gizakiago baino. Horretan datza *i* izatearen garrantzia.

2.2. *i* orotarikoa

i datibo kasu marka zehar osagarriei ezartzen zaie jeneralean. Jo dezagun, adibidez, *eman* aditzera. *Eman* aditzak zenbait rol tematiko ezartzen ditu. Rol

³⁸ *The importance of being earnest, A trivial comedy for serious people*, Oscar Wilde. 1895ean taularatu zen lehenengoz Londonen. Handik ehun urtera, *Ernesto izatearen garrantzia* izenburupean ekarri zuten gurera Alfonso Sastrek eta Maskarada antzerki taldeak.

dramatikoen modukoak dira rol tematikoak: sintaxiaren dramatizazio unibertsalean *egileak* dira batzuk, *gaiak* besteak; *helburuak* batzuk, *iturburuak* besteak, eta abar. *Eman* aditzak egile eta gai rol tematikoak ezartzen ditu, hots, baten batek zerbait ematen du, eta sintaktikoki subjektu eta osagarria dira, hurrenez hurren. Horrezaz gain, ematen dena sarri askotan norbaiti ematen zaio. Horri *helburua* esaten diogu eta sintaktikoki zehar osagarri bat da. Bada, *i* datibo kasu markak zehar osagarria markatzen du euskaraz, euskara abstraktu, inongo eta non-nahikoan. Bestalde, bat, bi eta... hiru argumentu erakusten dituen aditzari *ditransitiboa* (ingelesez, *ditransitive*) deitzen zaio eta *iragankor datiboduna* ere dei geniezaioke, azken batean, *eman* aditza iragankorra delako eta *i* datibo marka daraman argumentu bat (zehar osagarria) gaineratu zaiolako. Ezagunagoa da euskaldunen artean Euskaltzaindiaren³⁹ deitura: *nor-nori-nork* motako aditz oina deritzo *eman*-i (eta *ikus*i aditz iragankorrari *nor-nork* motakoa). Nik iragankor datiboduna deitura erabiliko dut testuan zehar, nahiz eta Euskaltzaindiaren deiturak ere aipatuko ditudan tarteka, irakurlearentzat lagungarriak izan daitezkeenean.

Mintzagai dudan *i* honen zertzeladak euskal hiztun (ia) orok bere euskararen ezaugarritzat hartuko ditu. Horregatik, deritzot *i* honi *orotarikoa*. Asko izan dira *i* orotariko honetaz edo datiboaz oro har idatzi duten hizkuntzalariak etxean nahiz kanpoan. Etxekoen artean eta euskal datiboari dagokionez, Pablo Albizu, Arantzazu Elordieta, Ricardo Etxepare, Beatriz Fernández, Jon Ortiz de Urbina, Beñat Oihartzabal edo Milan Rezac aipa ditzakegu alfabetikoki ordenaturik. Ez du horrek esan nahi beste inork ezer ere idatzi ez duenik gaiaz, baina euskal gramatikan gaiari loturik ezagun samarrak diren izenak horiexek dira (ez horregatik euskal gramatikatik kanpoko beste euskal eremu batzuetan ezagunak). Kanpotarren artean, azkenik gabea da zerrrenda, eta horregatik eta bere doktore tesiak izandako oihartzun handiaren-gatik bat bakarra aipatuko dut, Lyna Pylkkänen, hizkuntzalari estatubatuar gaztea.

i-k, *eman* aditzaren helburu rol tematikoaz gain, beste batzuk ere jaso ditzake. Bada, *i* helburuarekin lotu badugu ere, ez da helburua *i*-ren rol tematiko bakarra. Adibidez, *Joni surf-ohola erosi diot* badiogu, *i*-k helburua adierazten du Jon baldin bada surf-ohola jaso behar duena, baina iturburu da, aldiz, Jon surf-ohola saltzen diguna bada. Bestalde, Jon *onuraduna* ere izan daiteke, baldin eta ohola berarentzat bada (helburua eta onuraduna halako perpausetan bat bera izaten dira), baina ohola berarentzat gabe, beste norbaitentzat balitz, orduan, Jon helburu soila litzateke eta ez onuraduna (*Joni surf-ohola erosi diot Sararentzat* perpausuan adibidez, Sara litzateke onuraduna eta Jon, surf-ohola erosteko eskatu digun laguna, adibidez, eta hortaz, helburu soila).

³⁹ Euskaltzaindia (1987: 47-59).

Ez dira *eman* edo *erosi* bezalako aditz iragankor datibodunak *i*-dun argumentua erakuts dezaketen bakarrak. Izan ere, aditz iragangaitzek ere izan dezakete *i*-dun argumentu bat. Demagun: *joan* aditza iragangaitza da eta hortaz argumentu bakar bat du (*nor*), sintaktikoki subjektua dena. Ondoko perpausean ikus daiteke hori: *Jon aholku eske joan da*. Alabaina, perpaus horretan, *i*-z markatutako beste argumentu bat gaineratu daiteke, *Jon aholku eske joan zaio Aritzari* perpausean bezala, eta hemen ere, *i* kasu marka duena (*nori*) helburua da. Halako aditzei *nor-nori* deritze Euskaltzaindiak, eta *iragangaitz datibodunak* ere dei geniezaieke, izatez iragangaitzak direlako eta datiboa daraman argumentu bat gaineratu zaielako. Ingelesezt, *bivalent intransitives* deitura eman die Ricardo Etxeparek.⁴⁰ *Joan, etorri, hurbildu* bezalako mugimenduzko aditzak izaten dira halako itxura erakusten dutenak.

Bestalde, *i*-dun argumentua jasotzen duten aditzen artean, leku berezia betetzen dute gramatika orokorrean *aditz psikologikoak* deritzegunek eta oro har prozesu psikologikoak adierazten dituztenek. *Ahaztu, begitandu, bururatu, gustatu, laketu, interesatu, damutu* eta *otu*, adibidez, aditz horietakoak dira. Aditz horiei esker, *niri kostaldea gustatzen zait* bezalakoxe perpauzak sortzen ditugu, eta halakoetan, *niri* argumentu *i*-dunak *esperimentatzaile* rol tematikoa du eta *kostaldea* argumentua, berriz, gaia edo *estimulua* da. Arras diferenteak dirudite *Aritzari joan* eta *niri gustatu* hitz segidetan agertzen diren datibo argumentuek. Ez dut orain euren estatus sintaktikoari buruzko xehetasunik eman-go, baina bien arteko diferentzietan behin baino gehiagotan eztabaidatu dute euskal hizkuntzalariek. Ostean, Euskaltzaindiak ez du halakorik esaten, baina aditz motak sailkatzen hasita, azken horiek *nori-nor* balizko motako aditz ointzat har litzake, *nor-nori* motako aditzetatik bereiziz. Bai, jokabide sintaktikora begira oso diferenteak dirudite *Aritzari joan* eta *niri gustatu* hitz segidetako argumentu *i*-dunek.

Azkenik, talde beregaina osatzen dute, bi argumentu izanik ere, bietako batek *i* daramanean, esate baterako, *begiratu, deitu* eta *lagundu* aditzek, *sugeak txoriari begiratzen dionean*⁴¹ bezala. *Sugeak k* markaduna dugu batetik, hots, ergatibo kuttuna daraman subjektua, eta *i* datiboa erakusten duen *txoriari* besetik. Harrigarria da datibo hori, printzipioz ez dugulako espero *i* datibo markadun argumenturik, berarekin batera osagarri zuzen bat (*nor*) ez badugu.

Begiratu bezalako aditzak, *nor izuna* duten moten artean sailkatzen ditu Euskaltzaindiak, *nor-nork* aditz-oinen barruan.⁴² Euskaltzaindiak *nor izuna* dela dio, *nor* sintagmarik ez delako inon agertzen. Alabaina, *nor izuna* gabe, *nori benetakoa* da (*i jatorra* beraz) *txoriari* atxagatarrak daramana. *i* jatorra dara-

⁴⁰ Ricardo Etxepare (2003). Ikus lan hori zein Beatriz Fernández eta Jon Ortiz de Urbina (2010), aditzen sailkapen zehatz baterako.

⁴¹ Bernardo Atxaga (1984).

⁴² Euskaltzaindia (1987: 48-49).

mala esateko, proba sintaktiko batzuk erabili dituzte Beatriz Fernándezek eta Jon Ortiz de Urbinak eta probak ikusirik ez dirudi ez nor izuna dagoenik ezta *i* daraman *txoriari* itsutzen hasiak osagarri zuzen peto baten ezaugarriak erakusten dituenik ere: *txoriari* horrek zehar osagarri bat dirudi eta izatez, zehar osagarri jator bat da. Proba sintaktiko sorta horretatik bat baino ez dut hemen aipatuko, egile horiek aipatzen dituztenetatik, eta *bigarren mailako predikatuekin* du zerikusia. Hau ez da esapide ezaguna izango irakurlearentzat, baina adibide batez argituko ditugu bere zalantzak. Esate baterako, *Jon biluzi ikusi dut* perpausean, *biluzi* da bigarren mailako predikatua eta Jonekin dago harremanetan, hau da, Jon da biluzi dagoena (eta biluzi dagoela ikusi dudana). Jon perpaus horretako osagarri zuzena da, irakurleak dakien bezala, eta bera bezalako osagarri zuzenak dira bigarren mailako predikatuak kontrola ditzaketena. Aldiz, zehar osagarriek ez dute halako ahalmenik. Jo dezagun *Joni sagarra eman diot biluzi* perpausera. Perpaus horretan, *Joni* zehar osagarria da, eta kasu honetan, aurrekoan ez bezala, Jon ezin daiteke izan biluzi dagoena (izatekotan neu naiz biluzi dagoena). Horixe gertatzen zaie zehar osagarriei: ezin dute bigarren mailako predikaturik kontrolatu. Bada, *i* jatorra (edo nori benetako) duten osagarriei gauza berbera gertatzen zaie. Ikusi bestela: *Joni begiratu diot biluzi* perpausean ere Jon ezin daiteke izan biluzi dagoena. Horregatik (eta beste gauza batzuegatik), *Joni* hori ez da osagarri zuzen bat, zehar osagarri peto bat baino. Euskaltzaindiaren deiturara itzuliz, non da ba nor izuna? Zehar osagarri jator bat, besterik ez da ageri halako aditzekin.

Gainerakoan, halako aditzei *alternating verbs* deitu zien Ricardo Etxeparek, eta hala da, bai, *datibo (nori)* eta *absolutibo (nor)* *alternantzia* erakusten duten aditzak dira horiek. Adibidez, irakurleen artean egongo dira (*zuri*) *etxera lagunduko dizut* diotenak eta oso bestela, (*zu*) *lagunduko zaitut* nahiago dutenak. Bada, horrexegatik deitzen die Etxeparek alternantziadunak: osagarri bera, datiboarekin (*zuri*) edo aukeran absolutiboarekin (*zu*) marka daitekeelako. *Lagundu* aditz korapilatsua da, baina badirudi hizkeren arteko muga ezkutu baina benetako batek bereizten dituela *lagunduren* alternantziako bi aukerak: *grosso modo* hitz eginez, hego-mendebaldean *lagundu dizut* esaten da eta *lagundu zaitut*, berriz, ipar-ekialdean. Aldakortasunaren zantzuak hasiak gara antzematen hizkeratik hizkerara ere.

2.3. *i* ispiluauren aurrean⁴³

i kasu markaren nondik norakoak azaldu ditugu orain artean, baina hau ez da hasiera besterik. *Joni* diogunean, *i* kasu markarekin batera, bada bere ispiluko irudia dirudien beste *i* bat, aditz laguntzailearen barruan jasotzen dena. Lehengo adibide bat gogora ekarriz, *surf-ohola erosi dut* perpausean *Joni* gaine-

⁴³ *Ispiluauren aurrean* (Dionisio Díaz), Hertzainak, *Amets prefabrikatuak*, Oihuka, 1990.

ratzen badugu, ez dugu *Joni* (*surf-ohola*) *erosi dut* esango, hegoaldean bederen, *erosi diot* baino. Beste *i* hori denaz bezainbatean, hipotesiak asko eta askotari-koak izan dira, baina hipotesietara heldu baino lehen, ispiluaren irudira begira dezagun.

Etorri da diogunean, aditz nagusi bat dago, hots, *etorri*, eta berarekin batera *aditz laguntzaile* izenekoa dator. *Izan* aditza da aditz laguntzaile hori eta *da* forma itxuratzen du jokutzen dugunean (*naiz*, *haiz*, *da* eta abar). Aditz guztiak berdinak ez direnez, aditz nagusia *etorri* izan beharrean, *erosi* denean, orduan *erosi dut* diogu, eta ez dugu *izan* laguntzailea hautatzen, **edun* baino. **Edun izartu* hori bitxi samarra da. Sintaxilariok izartxoak jarri ohi diegu ez-gramatikaltzat jotzen dugun hitzari edo hitz segidari (hots, jatorrizko hiztun baten-tzat printzipioz onargarria ez denari), baina bestelako arrazoiengatik darabilte izartxoak hizkuntzalari historiazaleek (eta kasu honetan, baita geuk ere). Hala, oraingo honetan izartxoak adierazten duena da *edun* soilaren testigantzarik ez dagoela, hots, *dut*, *duk/n*, *du* eta abar gisa jokaturik bai badirela, baina ez *edun* dagoen-dagoenean. Ohi bezala, badira salbuespenak, eta Koldo Mitxelena eta Ibon Sarasolaren *Orotariko Euskal Hiztegia* erraldoira jo besterik ez dago *edun* horren agerraldi (historiko)ak, bakanak badira ere, ikusteko.⁴⁴ Luze joko luke **edun* horren gabeziaren arrazoiez mintzatzeak, benetan konplexua eta ederra baita gaia —eta are ederragoa, gabezia hori euskaldunon gabezia bakarrik ez dela konturatzen garenean—, baina *i*-renak ez diren bideetatik eramango gintuzke horrek eta guk *i* baino ez dugu gogoan.⁴⁵

Bestalde, *erosi dut* dioen hiztun berak (*Joni*) *erosi diot* esaten du, eta hortxe dugu gure solasgaia beste behin, hortxe gure arretaren fokua eta plazer iturria. *i* hori ez da *erosi diot* hitz segidan bakarrik ageri. Jo dezagun berriro *Jon aholku eske joan da* perpausera. *Aritzari* gaineratuz gero, *Jon aholku eske joan zaio Aritzari* diogu, eta *i* bera ageri da *izan* laguntzaile jokatuan. Alabaina, *i*-k batzuetan itxura aldatzen du, *i* izaten jarraitzen duen arren. Konparatu bestela *Jon kezkatu*rik *doa* eta (*Jon kezkatu*rik) *doakio Aritzari*. *i*, *doakio* adizkian, ez da *i* hutsa, *ki* baino, eta adizkietako *i* hori, batzuetan *i* eta besteetan *ki* denez, (*k*)*i* deituko diogu aurrerantzean. Beraz, *i* gordeko dugu *Jon bezalako* izenei (eta izen sintagmei edo bestelakoei) gaineratzen diegun *i* (kasu) markaz hitz egiteko, eta (*k*)*i*, aditz laguntzailean edo adizki jokatu batean oro har ageri den bere ispilu irudiaz aritzeko.

Gainerakoan, izanak berriro ere izena du, eta ez izen bat bakarrik batzuetan. (*k*)*i* hori izendatzeko euskal hizkuntzalaritzan gehien darabilgun izena

⁴⁴ OEH (VI: 386). Nahi izanez gero, ikus baita ere Céline Mounole (2011: 25 oin-oharra) *edun* honen testigantza historikoetarako. Bide batez, euskararen historiaren xehetasunez gozatzeko parada izango du Céline Mounoleren doktore tesia irakurtzen duenak.

⁴⁵ Bi lan klasikotarako, ikus Émile Benveniste (1966) eta Richard S. Kayne (1993). Aditz laguntzaileen hautaketarako, ikus baita ere 53 oin-oharra.

dative flag edo *datibo ikurra* da eta Robert L. Traski⁴⁶ zor diogu izen hori. Dena den, deitura horretaz gain, nahi beste izen eman diote hizkuntzalariek (*k*)i horri, hala nola, *affixe pré-datif* Georges Rebuschik frantsesez⁴⁷ edo *dative pre-suffix* José Ignacio Hualdek ingelesez⁴⁸... Aho korapilo bat dirudi, ezta?

Kontua da deitura horien guztien azpian zer ote dagoen, deitura deskribatzaileak baino ez baitira, hots, estatus teorikorik ez dutenak. Hipotesiak datoz orduan, eta ikertzaileen intuizioak mundu bestela kaotikoa ordenatu, zatikatu eta azaltzen du. (*k*)i hori zer ote?

2.4. *i* eta (*k*)iz hausnartzen

Bada, zer da (*k*)i? Galdera horri erantzuteko, aditz laguntzailea deitu dugunaz gogoeta egin beharra dugu. Gure lehen galdera, beraz, izan daiteke ea *erosi dut* eta *erosi dizut* diogunean, aditz laguntzaile bat bera dugun edo ez. Eta (*k*)i bestela itxuratzen duten hizkeretan, mendebaleko euskaran, kasurako, kideko *erosi dot* eta *erosi deusut* formak, azkenaren hamaika aurpegirekin, aditz laguntzaile bakarrarenak diren edo ez. Ez da galdera makala. Erantzunei dago-kienez, ni neu, behintzat, aditz bat bakarra delakoan nago, hots, **edun* bera. Hala, *erosi dut* eta *erosi diot*, biak dira aditz laguntzaile beraren bi adizki; baita *erosi dot* eta *erosi deusut* ere. (*k*)i ezagunari dagokionez (mendebaleko *deusut* adizkiko *tsi* aurkitu berriaz hitz egingo dut aurki), iritzia berekoak dira Euskaltzaindia eta José Ignacio Hualde adibidez.⁴⁹ *Erosi dizut* esaterakoan, ez dugu ikusten (*erosi*) *dut* adizkiko morfemak aletuz gero, aditz erroari dagokion *u* morfemarik. Hala ere, morfema hori ez ikusteak ez du esan nahi **edun* hor ez dagoenik (lehenago absolutiboaz ari nintzela esan dudana bezala). *Meigex* ez dute ba esaten (*eu non creo nas meigas, mais*) *habelas*, *hailas*⁵⁰ hura? Bada, horixe: sinetsi edo ez, meigak bezala, **edun* egon badago. Engainagarriak dira gure zentzumenak eta batzuetan ikusten duguna da, hain zuzen, ez dagoena. *Erosi dizut* adizkian, beraz, ez dago, **i* aditz erro hipotetiko bat, inoiz espekulatu den bezala, **edun* ezaguna baino. Ez gaitzala engaina gure zentzumenak eta jarrai ditzagun arrazoiaren bideak.

Beste alde batetik, *tsi* dugu, *dizut*-en kideko *deusut* mendebalekoan. Zein da *deusut*-en aditz erroa? Gure iritzia eman diogu dagoeneko irakurleari, **edun* bera dela esan diogunean. Alabaina, ez gatoz honetan bat hizkuntzalari guztiak. Esate baterako, Euskaltzaindiak eta Robert L. Traskek **edutsi* dela dio-

⁴⁶ Robert L. Trask (1977).

⁴⁷ Georges Rebuschi (1984: 617).

⁴⁸ José Ignacio Hualde (2003: 201, 210).

⁴⁹ Euskaltzaindia (1987b) eta José Ignacio Hualde (2003).

⁵⁰ *Nik ez dut meigetan sinesten, baina egon badaude*. Galiziar (eta Leondar eta Asturiar) tradizioko izaki majikoak dira meigak.

te, nahiz eta hori ez den Traskek bederen duen hipotesi bakarra.⁵¹ **Edutsi* izar-txoduna berreraikitako aditz bat da, eta, hortaz, ez du dagoen dagoenean inongo lekukotasunik erakusten (**edun*-ek bezala). Oso antzekoa da *eutsi* aditza, osagarri bakarrari datibo kasu marka ezartzen diona (*eutsi goiari!* esaten dugunean adibidez), *begiratu* aditzarekin ikusi dugun bezala. Dena den, zer dela eta pentsatu behar dugu halako formetan **edun* ez den beste aditz laguntzaile bat dugula eta ez **edun* bera? Nik neuk, behintzat, arrazoi bat baino gehiago emango nituzke **edun* bera dela esateko. Lehenik eta behin, mende-baleko *deutsut* adizkian, **edunen* erroaren morfema bera ageri da, hots, *u* (gehi *tsi*), eta *u* hori **edun*-en errotzat hartu dugu dagoeneko. Bigarrenik, ipar-ekialdeko *de(ra)utzut/dautzut* kidekoan, *u* bera jasotzen da (**edun* berriro ere, gehi *ra* oraingoan)⁵²; eta azkenik, c) *izan* bera bada aditz laguntzailea *joan da* eta *joan zaio* adizki iragangaitz soil eta datibodunean, zergatik pentsatu behar dugu adizki iragankor soil eta datibodunen artean (*erosi du* eta *erosi dio*), **edun* laguntzaile bakarra ez, baizik eta bi daudela?⁵³ Horrek guztiak, eta mesfidatiren batek oraindik ere zalantzarik balu, Ockhamen labainak ere **edun* aditz laguntzaile bakarraren alde egiten du.

Konforme, eta berriro (eta lerro gutxitan hirugarrenez), zer da orduan (*k*)*i* (eta *tsi*)? Bada, hor aitor dut, makurtu behar naiz (ez guztiz baina) urteetan zehar nire ikerkideetako batek, Pablo Albizuk⁵⁴ beste batzuen artean

⁵¹ Euskaltzaindia (1987b) eta Robert L. Trask (1995). Traski dagokionez, bi dira 1995eko lanean aipagai dituen hipotesiak: a) adizki hauek *eutsitik* datozela eta b) **edun* beretik datozela eta *zehir osagarri markatzaile* bat biltzen dutela. Sofistikatuagoa da eta interesgarriagoa, izatez, lehenagokoa, 1981ekoa den hipotesia atal honetan zehar xehetasunez aztertuko duguna.

⁵² Ipar-ekialdeko hizkeretan ez da *ki* ez bada *ra*, *derautzut* / *dautzut* adizkietan aurkitzen duguna. Ikus Ricardo Gómez eta Koldo Sainz (1995: 240, 244-5) hurbilketa diakroniko baterako. Egile horien ustez, *derauka-drauka-daroka* adizkiak **edun*-en arazle **eradun*-etik eratorri dira historikoki. Beselako hipotesi historiko baterako, ikus adibidez Hugo Schuchardt (1972 [1893]: 287). Sinkronikoki, Gómez eta Sainzen ildo berekoa da nire hipotesia, nahiz eta nire ustez, ez dugun zertan **eradun* aditzik asmatu behar adizki horiek azaltzeko. Izatekotan, arazle buru bat dago, aplikatiboarekin batera. Azaldu beharra dago, noski, zer dela eta dugun arazle hori. Neronek momentuz ez dut erantzunik. Arazlea duten adizkien zabalkunde historikorako aplikatiboaren kaltetan, ikus Koldo Mitxelena (1960 [2011]: 698-699). Biak, *ra* arazlea eta (*k*)*i* aplikatiboa batera ager daitezkeen hizkeretarako, ikus René Lafon (1944) eta Gabriel Aresti (c. 1970, 1972). Aditz laguntzailearen egituraren inguruko azterketa historiko baterako, ikus baita ere Borja Ariztimuño (2013).

⁵³ Thomas McFadden (2007) ikus daiteke BE eta HAVE (halaxe deritzete) aditz laguntzaileen arteko hautaketarako, gure kasuan *izan* eta **edun*-i dagozkienak, hurrenez hurren. Kontuan izan hizkuntza batzuek HAVE hautatzen dutela sistematikoki adizki perifrastikoak (edo nahiago bada) analitikoak jokatzen; adibidez, gaztelaniak, portugesak edo katalanaren hizkera batzuek. Aldiz, beste zenbait hizkuntzak, hala nola, galesak, eskoziar gaelikoak edo tamilak, BE aukeratzen dute. Azkenik, euskara bezalako hizkuntzak daude, BE zein HAVE darabiltenak; esate baterako, frantsesa, italiara, okzitaniara, alemaniera, nederlandera, erdi aroko portugesa eta erdi aroko galiziera. Gaiari dagozkion beste lan batzuetarako, ikus 45 oin-oharra.

⁵⁴ Pablo Albizu (1997, 1998, 2001), Pablo Albizu eta Beatriz Fernández (2006). Eta ez da bera bakarka eta elkarlanean hipotesia defendatu duen bakarra, Eurídice Arregik (2003a) eta Eurídice Arregi eta Javier Ormazabalek (2003) ere hala egin izan dute, beste batzuen artean.

defendatu izan duen hipotesira: *eman* aditzarekin batera agertzen den *i*-dun zehar osagarria (eta *i*-rekin markatutako beste edozein argumentu) *aplikatibo* bati zor zaio. Eta horixe da, hain zuzen, *ki* (eta *tsi*), buru aplikatibo bat, Arantzazu Elordietak bere doktore tesian iradoki zuen bezala.⁵⁵ Oso kamaleonikoa da buru hori, eta horri esker, erdialdeko euskarari (*k*)*i* itxura du eta mendebalekoan, berriz, *tsi*, baina sintaktikoki bietan gauza bat bera da. Eta berriro ere, edertasuna xehetasunetan dagoen arren, irakurleak ez du izkribu honetan xehetasunik aurkituko, iradokizun lausoak baino.

Dena dela, inork jakin-mina ase nahi badu, dakiela, besteok Mark Baker⁵⁶ hizkuntzalariaren lan bikainari esker besteak beste dakigun bezala, munduko hizkuntza asko eta askotan, hala nola, bantu hizkuntzetan, aplikatiboaren bitartez gaineratzen direla argumentuak perpausera.⁵⁷ Adibide erraz bat eman dezagun Eurídice Arregiren⁵⁸ ildo jarraituz (Pablo Albizurekin batera, euskaraz aplikatiboaren hipotesia erabili duten ikertzaileetako bat da). Hegaluzegaraia dela eta (antxoia joana da), *atuna tomatetan egin dut Jonentzat* esan dezaket (termoan eraman du hondartzara goizean). Perpaus horretan *Jonentzat* sintagma dago, eta orain arte bera bezalakoez hitz egin ez badut ere, heldu da bere garaia ere: *-(r)entzat* horri *postposizioa* esatean diogu hizkuntzalariok (*nor*, *nori*, *nork* eta *noren* ez diren gainerako guztiak dira postposizioak (*norekin*, *no-entzat*, *non*, *nora*, *nondik* eta abar). Postposizioak, izatez, gaztelaniaz edo frantsesez dauden preposizioen parekoak dira. Hurrenkerari dagokionez ez bada, ez dago printzipioz (euskal) postposizio eta (erdal) preposizioen arteko diferentziarik. Kontua da perpaus hori beste modu batez adieraz nezakeela esanez *Joni atuna tomatetan egin diot*. Hemen dira *i* kasu marka eta (*k*)*i* berriro, eta itxura guztien arabera, (*k*)*i* aplikatiboari esker dugu *Joni* perpausean. Orobat, perpaus horren kidekoak lirake munduko hizkuntzetan aurkitu ohi ditugun egitura aplikatiboak. Honaino euskal hizkuntzalarien arteko akordioa nahikoa zabala da, aplikatiboa gora-behera. Alabaina, hemendik aurrerakoan sortzen dira diferentziak: Albizuk, Arregik eta bestek bi perpausak harremanetan daudela uste dute eta bata bestetik eratortzen dela diote gainera: euren ustez, *grosso modo* hitz eginez, *Jonentzat* sintaxian *Joni* zehar osagarri bihurtzen da aplikatiboari esker eta horrekin batera bere estatus sintaktikoa aldatu egiten da. Beste hizkuntzalari batzuek,⁵⁹ berriz, ez dute hori horren argi ikusten eta bi egiturak beregainak direla uste dute. Ikusi beharko da denbora zeinen alde-ara makurtzen den.

⁵⁵ Arantzazu Elordietak (2002: 62).

⁵⁶ Mark Baker (1988).

⁵⁷ Ikus Beatriz Fernández eta Jon Ortiz de Urbina (2007), aplikatiboaren hastapenak ulertu nahi badira.

⁵⁸ Eurídice Arregi (2003) eta Eurídice Arregi eta Javier Ormazabal (2003).

⁵⁹ Beñat Oihartzabal (2007b), Arantzazu Elordietak (2002) eta Beatriz Fernández eta Jon Ortiz de Urbina (2010)

Harrigarria bada ere, hipotesi hori bera ez, baina bere zantzuak zituen intuizioa bederen, Pablo Albizuk eta beste batzuek baino askozaz ere lehenago ekarri zuen gurera kanpotar hizkuntzalari batek, Robert L. Traskek, gorago ere dagoeneko aipatu dudanak. Esango nuke gauzei begira daudela ((*k*)*i*, *tsi* izan edo beste edozer) arazo optikoak sortzen zaizkiela gu bezalako maiteminduei. Gogoan al dauka inork begibakarra nola sortzen ote zitzairen Julio Cortazar gogoangarriaren maitaleei, elkarri hurbildu eta hurbiltasunaren hurbiltasunez, bi gabe, begi bakar bat besterik ikusten ez zutenean?⁶⁰ Batzuetan, begibakar ikusten ditugu maitearen bi begiak gertuko maitaleok. Ez dugu distantzia nahikorik ikusgaiarekiko eta horrek (maitekorki bada ere) desitxuratu-edo egiten du gure laztanaren irudia. Alabaina, datorrela kanpotar trebe bat, urrutiko behatzaile bat, noizean behingo amorante bat nahi baduzue, eta han ikusiko du bereizmen handiarekin gertukook ordura arte ikusi ez duguna. Ez derrigor kanpotar begia adituagoa delako, kanpoko bere begiratuak ikusgaiari beste izari bat ematen diolako baino.

Hala Traskek⁶¹ (*k*)*i* / *tsi* preposiziotzat jotzen zuen, aditzera inkorporatutako preposiziotzat. Horretarako, bi arrazoi nagusi zerabiltzan, batetik (*k*)*i* / *tsi* beti ageri dela (pertsona) izenordain baten aurretik, adibidez, *ekarri dizut* diogunean, *i zu* pertsona markaren aurretik (edo ezkerretara) azaltzen da beti; eta bestetik, ustezko preposizio horrek datiboa ezartzen duelako beti. Xehetasunak beharko genituzkeen arren, erraz ikus daiteke aplikatiboaren hipotesiarekiko lotura, preposizioa aditzera inkorporatzen denean sortzen baitira egitura aplikatiboak.

⁶⁰ Julio Cortazar (1963). Ez dakit *Rayuela* liburutik atera ote dudan begibakarraren aipamen hori; bere orrialdeen oroitzapenetik bai behintzat. Auskalo ez ote dudan asmatu... Ez dut liburua begizatuko, badaezpada aurkitzen ez badut. Inor peskizan hasten bada eta aurkitzen ez badu, gaizki esanak barkatu eta ondo esanak gogoan hartu, bertsolariek dioten bezala.

⁶¹ Hitzez hitzeko aipamena dakart oraingo honetan. Salbuespena da testu osoan: «What was the original source of *-ts-* and *-k-*? We cannot be sure, but I would like to suggest that they were prepositions —after all, they always precede pronominal elements, and they govern a particular case, the dative. The incorporation of prepositions into verb forms is well attested in other languages, including Amharic and the Munda languages of north India (all of these languages, incidentally, are exclusively postpositional today, like Basque). Prepositions are not directly attested at any period in Basque, but perhaps here we have a tantalizing residue of a time when the structure of Basque sentences was very different.» («Zein zen *-ts-* and *-k-*ren hasierako sorburua? Ezin gaitzek ziur egon, baina iradoki nahi nuke preposizioak zirela —azken batean, eurak beti ageri baitira izenordainkien aurretik, eta kasu zehatz bat gobernatzten baitute, hots, datiboa. Preposizioak aditzera inkorporatzearen testigantza beste hizkuntza batzuetan gertatzen da, hala nola, amharikeran edo India Iparraldeko munda hizkuntzetan (bide batez, hizkuntza hauek guztiak postposiziodunak dira gaur egun, euskara bezalaxe). Preposizioak ez dira zuzenean jasotzen euskararen inongo arotan, baina beharbada hemen dugu euskal perpausen egitura oso bestelakoa zen garai baten aztarna tentagarri bat.») (itzulpena gurea da.) (Trask 1981: 289). *Subjektua-aditza-osagarria* hitz hurrenkera (Robert L. Trask 1977) eta *aditza-subjektua-osagarria* hitz hurrenkerak (Ricardo Gómez 1994, eta Ricardo Gómez eta Koldo Sainz 1995) proposatu izan dira euskararen lehenagoko garaietarako.

Halan da guztiz ere, argibide bat edo beste beharko du irakurleak geroago-koa ere ulertzeko. Izan ere, *(k)i / tsi* aplikatiboak pertsona marka bat *sartzen* du adizkira. Pertsona marka horren, eta oro har, adizkietan ageri diren pertsona marka horien estatus sintaktikoaren gaineko eztabaida saihestu egingo dut izkribuan. Nik neuk honi dagokionez, nahiko jarrera kontserbadorea hartuko dut eta *eman d-i-zu-t* adizkian, *zu* eta *t*, hurrenez hurren, datibo eta ergatibo komunztadura markatzen hartuko ditut (hots, *nori* eta *nork* markatzen); *ikusi n-a-u-zu* edo *etorri n-aiz* adizkietan, bestalde, *n* absolutibo komunztadura markatzen joko dut (*nor*).

Azkenik, gure *i* vs. *(k)i, tsi* direla eta, argitu beharko litzateke, inoiz Pablo Albizuri entzun diodan bezala, zer dela eta dugun *i*, bere ispilu irudiko *(k)i* (eta *tsi*) inkorporatu bada aditzera (printzipioz *Joni bizkar-zorroa eman diot* esan beharrean *Jon bizkar-zorroa eman diot* bezalakoxe zerbait espero genezake). Euskaldun jatorrari aberrazio sintaktikoa irudituko zaiona ez da horren aberrantea, aldameneko hizkuntzetara begiratzen dugunean; ingelesez, adibidez, *I gave a book to John* esaten dute batetik, eta bestetik *I gave John a book*. Lehen perpausuan *to* preposiziodun sintagma bat dago; bigarrenean, berriz, *John* preposiziorik gabe ageri da. Bigarren perpaus horri *osagarri bikoitzeko egitura* deitzen zaio gramatikan eta atal honetan mintzagai izan dugun egitura aplikatiboan kidekotzat har daiteke. (Lyna Pylkkänenen doktore tesian eta beste hainbat egileren lanetan, aplikatibo buru bati esker sortzen dira baita ingeleseko osagarri bikoitzeko egitura horiek ere.) Izatez, Estibaliz Montoyaren eskuizkribu dotore baina argitaragabe batez eta Arantzazu Elordietaren doktore tesiaz⁶² geroztik badakigu inongo zalantzarik gabe *Joni liburua eman nion* bezalako perpausak osagarri bikoitzeko egiturak direla, eta horietan, ingelesez ikusi dugunez, *John* biluzi bat dago, inongo markarik gabe. Hortaz, euskaraz ere, *(k)i* edo *tsi* inkorporatutako preposizio bat bada, orduan ez litzateke Jon markatzen azaldu beharko. Ikusten denez, beraz, mintzagai dugun hipotesiaren argitara, bederen, *Jon bizkar-zorroa eman diot* adibidea ez da horren aberrantea..., baina izatez ez-gramatikala da. Hori eta askozaz ere gauza gehiago argitu beharko genituzke. Alabaina, *ez zaidazu galdetu gauza ilun guztien arrazoi gordea*.⁶³

2.5. *i* orotarikoa eta lekuan lekukoa

i abstraktu, inongo eta non-nahikoaren, *i* orotarikoaren zenbait zertzelada aipatu ditut arestian. Alabaina, *i*-k baditu lekuan lekuko ezaugarriak, hizkera batzuetan bai eta beste batzuetan ez daudenak eta nekez orokortu daitezke-

⁶² Estibaliz Montoya (1998) eta Arantzazu Elordiet (2001).

⁶³ *Ni naiz*, Xabier Lete, *Xabier Lete*, Artezi, 1974. Baita Doctor Deseoren bertsioa, *Hay cuentos aún por inventar*, 1998.

nak euskal hizkera guztietara. Lekuan lekuko *i* horren lekukotasunak mendeetan zehar jaso dituzte dialektologoen eta euren lanetatik ezagun izango zaizkio irakurleari. Aitor dezagun: gramatikarion aldean, zabalkunde lan aparta egin dute dialektologoen eta ez zaie meriturik falta.

Sintaxilariok beste bide bat urratuz heldu gara hizkeren lekukotasunetara: Ruper (Ordorika)ren furgoi beltzaren⁶⁴ oinordekoa abian jarri eta euskal hondartza batean eta bestean, hizkera batean eta bestean, *dzanga*, murgiltzen gara, inon eta inoiz parametro ezezagunen bat deskubritzeko esperoan. Parametrorik deskubritzekotan hurbilxeago egongo gara giza hizkuntzaren erraiak ulertzetik. Parametroa noiz aurkituko zain, neronek lekuan lekuko bi *i* izango ditut hizpide jarraian: *i* kostaldekoa eta *i* bazterrekoa. Ea furgoneta beltz (arraia laranjarik gabe) ez den bidean gelditzen berriro.

2.6. *i* kostaldekoa

Lekuan lekuko *i* horietatik lehenak zerikusia du kostaldearekin, fenomenoak geografia kostatarra duelako, hein batean. Koldo Zuazok dioenez, Lapurdiko Hegomendebaldean gertatzen da fenomenoak: Basusarri, Arrangoitze, Arbona, Senpere, Ainhoa, Zugarramurdi eta Urdazubin hasi eta itsasora bitartean. Zuraiden, Larresoron eta Ezpeletan ere bada haren berri.⁶⁵ Nafarroan ere, bai Baztanen, Bertizaranan eta Bortzirietan; baita Gipuzkoan ere, Donostia eta Irun bitartean.⁶⁶ Eta Lekeition ere bai, Bizkaiko kostaldean.⁶⁷ Kostaldekoa bada, beraz, eta halaxe deituko diogu, *i kostaldekoa*, baina gogora dezagun *i* hori ez dela kostaldekoa bakarrik, kostaldetik urrunxeago lehorreratzen den *i*-a baino.

Geografia fisikoaz baliatuz zehazten dituzte hizkeren mugak dialektologoen, eta dialektologiarenak izan dira, hizkera aldakortasunari dagokionez, *i* kostaldekoaren lekukotasun gehienak eman dizkiguna eta oso aspaldidanik, gainera. Ez dirudi, baina, *i* kostaldekoa dialektologo haien oso gustukoa zenik, ez behintzat eman zizkieten deiturak kontuan hartuz gero. Louis Lucien Bonapartek⁶⁸ adibidez *idiotisme marine* zeritzan (baita *la faute de nau* ere) eta Pierre Lafittek⁶⁹ geroago *Solécisme de la Côte* (*kostaldeko solezismoa* euskaraz). *Idiotisme*, *solecisme* ez dira, ez, hitz amultsuak. Inoiz fenomenoaren geografia sentimentala idatziko balitz, deitura horien zioa arakatu beharko litzateke eta pasarte gogoangarri bat edo beste bildu, Fernando Artola 'Bordariren' ondoko testigantza hau⁷⁰ adibidez, Hondarribiko hizkeraz ari denean:

⁶⁴ *Nire furgoi beltza*, Ruper Ordorika, *Ni ez naiz Noruegako errege*, Elkar, 1983.

⁶⁵ Pedro de Irizar (1997, 1999) eta Koldo Zuazo (1999).

⁶⁶ Pedro de Irizar (1981, 1991 eta 1992) eta Koldo Zuazo (1997).

⁶⁷ Pedro de Irizar (1997).

⁶⁸ Louis Lucien Bonaparte (1869).

⁶⁹ Pierre Lafitte (1979 [1944]).

⁷⁰ Fernando Artola 'Bordari' (1981: 300).

«*Ta, neri bezela masálleko bat gaxki esan bakótxian emán bihar baldin báda; hamaika parttítu bihárko lirazké (...). Iparragirre zenak «zibilak esan naute» esan zuélako zaplátetik merézi ote du?».*

Bidegabea bizitza, umeari bere hizkera jatorrean hitz egiteagatik masailekoa dakarkiona eta Iparragirre zenari, berriz, fama. *Bai, negar egingo luke nere amak baleki.*⁷¹ Geografia sentimentalak, hizkerez eta beste gauza askotaz idatzi beharko genuke euskaldunok, behinolako zaurien orbanek zehazten dituzten bideak berriro sekulan urratu ez ditzagun.

Gatozen, baina, ildo nagusira. Urteak geroago, beste hizkuntzalari batek, Beatriz Fernándezek⁷² deitura neutroago bat eman zion, *datiboaren lekualdatzea* (ingelesez, *dativ displacement*) deitu zionean, eta hori da gramatikarien artean, bederen, orokortu dena (Milan Rezacen eta Karlos Arregi eta Andrew Nevisen lanetan⁷³ adibidez) eta zoritxarreko beste deiturak bazterrean utzi dituen. Deitura horrek euskaraz orokortua dagoen beste fenomeno bat eta beste deitura bat zuen inspirazio-iturri, hots, *ergatiboaren lekualdatzea* (ingelesez, *ergative displacement*), Itziar Lakari zor dioguna.⁷⁴

Goian azaldu dut zein diren *i* orotarikoari dagozkion ezaugarriak. Erakutsi dudanez, *i* dugun guztietan printzipioz espero dugu *i* horrekin batera (*k*)*i*, bere ispiluko irudia agertzea aditz laguntzailean, eta (*k*)*i* horren ondotik, segidan argumentu *i*-dunari dagokion datibo komunztadura marka aurkitzea, adibidez, (*niri*) *eman dit* bezalakoxe zerbait. Aldiz, *i* kostaldekoa denean, gauzak oso bestelakoak dira: kostatarrak (*niri*) *eman nau* dio, (*niri*) *eman dit*-en orde. Irakurle azkarra berehala ohartuko da Euskaltzaindiaren⁷⁵ sailkapena gogora ekarrita: *nor-nori-nork*-en orde, *nor-nork* erabiltzen denean dio idazleak *i* kostaldekoa dela. Izan ere, Euskaltzaindiak aditz oinak sailkatzeko ez ezik (*i* orotarikoan ikusi dugun bezala), aditz laguntzaileak eurak ere sailkatzeko bide bera baitarabil. Hortaz, aditz laguntzaileak begira badago irakurlea, bai, *nor-nori-nork*-en orde, *nor-nork* erabiltzen denean diot *i* kostaldekoa dela.

Nolanahi ere den, *i* honen makineria ulertzea da gure asmoa eta ez beste, eta makineria horretaz den bezainbatean, gauza pare bat hartu behar ditugu kontuan: lehenik eta behin, *i*, *niri* eta abarretan agertzen den kasu marka gorde egiten da, ez da galtzen. Aldiz, aditz laguntzaileari dagokionez, datibo ko-

⁷¹ *Nere amak baleki* (*Zibilak esan naute*), Jose Maria Iparragirre, 1855. Gurean Patxi Andi6n mardildarraren ahotsen entzuten genuen umetan disko jiragailuan (*Jos6 Mar6a Iparragirre Patxi Andi6n'en era*, 1973). Aukeran Miren Aranburu (Ensemble)ren ahots leun, goxo, iradokitzaile, seduzikorrean entzungo nuke orain (Miren Aranburu, *Gorri isila*, Errabal Jazz, 2002).

⁷² Beatriz Fern6ndez (2001).

⁷³ Milan Rezac (2006, 2008b), Milan Rezac eta Beatriz Fern6ndez (2013) eta Karlos Arregi eta Andrew Nevins (2012).

⁷⁴ Itziar Laka (1993).

⁷⁵ Euskaltzaindia (1987: 139-146).

munztadura marka beharko genukeen lekutik (*nori*-ren lekutik) atera da eta absolutibo komunztadura marka bati dagokion lekura (*nor*-en lekura) igaro da. Edo bestela esanda, *i* datibo kasua daraman argumentuak jasotzen duen komunztadura absolutiboa da eta ez datiboa. Amodio desordenatua da, bistan da, *i* kostatarrarena, espero denarekin ibili orde, espero ez denarekin dabilena, amodio kontuetan horrenbestetan gertatzen den bezalaxe (*Alkondarie!*⁷⁶).

Zenbait egilek komunztadura lekuz aldatu dela ikusten dute horretan eta hortik dator, hain zuzen, datiboaren lekualdatzea deitura.⁷⁷ Baldintza zehatzak behar dira horretarako. Adibidez, datiboaren lekualdatzea bakar bakarrik gertatzen da *i* kasu marka daramana lehen eta bigarren pertsonakoa bada, hots, (*niri eman nau eta (zuri) eman zaitu* bezalakoetan. Hirugarren pertsonakoa izanez gero, berriz, orduan, ohikoa den lekuan (eta ohikoa zaion komunztadurarekin) jarraitzen du *i*-k, *Joni eman dio* perpausean bezala. Bestalde, *nor-nori-nork*-en ordeko *nor-nork* baino zertxobait gehiago da datiboaren lekualdatzea. Adibidez, osagarria plurala denean (*sagarrak* eta ez *sagarra*) ezusteko formak sortzen dira, *nor-nork* ezagunean ez daudenak: *sagarrak eman nauzki* (vs. *sagarra eman nau*) edo *sagarrak eman gaituzki* (vs. *sagarra eman gaitu*). Are gehiago, forma horietako batzuetan, hala nola, (*nik zuri sagarrak eman zauzkitzut* perpausean *i*-k z- absolutibo komunztadura marka jasotzen du (datiboaren lekualdatzean espero den bezala), baina horretaz gain, datibo komunztadura marka bera ere (*tzu*) gordetzen du. Nolabait *bikoiztu* egiten du beraz, komunztadura.⁷⁸ Diferenteak izan arren, Oñatiko hizkeran,⁷⁹ badira bestelako bikoizketak, *neri sagarra emun nostan* perpausean adibidez.

Bistan denez, askotarikoak dira xehetasunak gauza txikiei makro (objektibo) batekin begiratzen zaienean; giza begiarekin ere ikusi ezin daitekeena ikusteraino heldu gaitezke. Eta herrian herriko ñabardurak ditu *i* kostatar honek. Esate baterako, *i* kasu marka daraman izen sintagmaren ezaugarriek zerikusia dute haren agerpenean: lekeitiar bati ez diozu lehen pertsonan baino adituko; aldiz, lapurtarrek, saratarrek adibidez, lehen zein bigarren pertsonan dute. Bestalde, hondarribiarrek eta oiartzuarrek *eman nau* ez ezik, *etorri nau* eta *gustatzen nau* ere badiote. Hortaz, *i* kostatarra ez da *eman* bezalako aditz iragankor datibodunekin bakarrik azaltzen, aditz iragangaitzekin ere jasotzen da. Xehetasunik xeheena ere ikus daitezke *i* txikia baino txikiagoa den *i* kostatarri begiratzen zaionean, txikia bere txikian handi bihurtzeraino.

⁷⁶ *Musturrek sartunde*, Gatibu, *Zoramena*, Oihuka, 2003.

⁷⁷ Mugimendua eta lekualdatzea nozio tekniko eta zehatzak dira sintaxi teoriaran, nahiz eta hemen modu inpresionistikoan aipatzen ditudan. Honetan interesa duenak jo dezala Xabier Artiagoitiaren (2001) eskuliburura, dagoeneko gomendatu dudana, eta lekualdatzea bereziki aztertu duten lanetara.

⁷⁸ Halako komunztadura bikoizketetarako, ikus adibidez, Robert L. Trasken (1981: 294) *eman arazi nautak* klasikoa, eta Milan Rezac eta Beatriz Fernández (2013) hurbilketa teoriko baterako.

⁷⁹ Oñatiko hizkera, Mendebalekoa. Ikus Pedro de Irizar (1992).

2.7. *i* bazterrekoa

i-ren geografia sentimentalean, badago *i* kostatarra bera baino estigmatizatua den beste *i* bat. *i* heretikoa da, dogma guztien kontrakoa; *i* matxinoa, *i* errebelde kausarik gabea; *i* anti oro,⁸⁰ *i* bazterrekoa, Eskorbuto⁸¹ bezala. Gehiegitxo, beharbada, morfema xume batez ari garela, baina gure ibilbide akademiko neketsuan, tarteka egin dezagun gramatika poetikoa, eta irakurleek barka diezagutela. Lan objektibo eta aseptikoetarako, baditu irakurleak eskura bestelako lanak, Céline Mounolena, Beatriz Fernández eta Milan Rezac-enak, edo Ane Odriarena, adibidez, gramatika eremuko lanak aipatzearen.⁸²

Dogmarik gabeko heretikorik ez dago, eta *i*-ri dagokionez, *dogma* da *i* orotarikoak betetzen duena eta gorago dagoeneko azaldu dudana *i* orotarikoa eta *i* *ispiluaren aurrean* izeneko bi ataletan. Bada, *i* bazterrekoak dogma urratzen du eta arauak hausten, ez Euskaltzaindiaren arauak bakarrik (horiek ere bai), euskaldun asko eta askoren euskararen barne-arauak baizik. Horregatik da hain zuzen *i* bazterreko hau ororen aurkakoa, eta horregatik ia estigmarainoko mesfidantza eta beldurra diote batzuek eta besteek. Zeren *i* bazterrekoak ez du markatzen markatu behar duena, hots, zehar osagarria, markatu behar ez duena baino: *i* bazterrekoak osagarri zuzena markatzen du. Eta *i* bazterrekoari esker diote hiztun batzuek *ikusi dizut*, ortodoxoen *ikusi zaitut*-en orde. Bai horixe, *i* kostatarraren ondotik, ezin zitekeen besterik izan pentsatuko du irakurleren batek: *i* bazterrekoaren kasuan, hiztun hauek *nor-nori-nork* darabilte, *nor-nork*-en orde. Horixe da, bai, *i* bazterrekoaren ageriko ezaugarri nagusia, eta izatez, biak ala biak (*i* kostatarra eta *i* bazterrekoa) batera aipatu izan dituzte ikertzaileek euren lanetan, Pedro de Irizarrek⁸³ adibidez.

Heresiak eremu geografiko (fisiko) zabal samarra du. Euskara nafarraren ezaugarria da, adibidez, eta, Ultzaman (erdigunean), Esteribar eta Erroibarren (sortaldean), edota Aezkoan eta Baztanen (tarteko hizkeretan) aurkituko du irakurleak. Koldo Zuazoren iritziz,⁸⁴ gaur egun Nafarroa gehienez erabiltzen da eta mendebaldeko hizkeretan bakarrik aurkitzen da dogma (Bortzerriak, Sunbila, Bertizarana, Malerreka, Basaburua Ttikia eta Araitz). Euskara nafarrean ez ezik, mendebaleko euskaraz ere, *i* bazterreko hau dugu Basaurin, Igo-

⁸⁰ *Anti todo* (Iosu Expósito, Juanma Suárez eta Pako Galán), Eskorbuto, *Anti todo*, Discos Suicidas, 1986.

⁸¹ Eskorbuto, Santurtziko punk taldea. Euskal Herriko punk talderik gogoangarriena laurogei eta laurogeita hamarreko hamarkadetan. Errebeldeak ziren kausarekin, eta errebelde (eta gazte) hil ziren Iosu Expósito eta Juanma Suárez 1992an, zaldiaren lepo gainetik beranduegi jaitsita. Heriozko mendetasuna zen eurena.

⁸² Céline Mounole (2008), Beatriz Fernández eta Milan Rezac (2010, 2013) eta Ane Odria (2012).

⁸³ Pedro de Irizar (1981-II: 359). Beste aipamen klasiko baterako, Louis Loucien Bonaparte (1869: 434) irakur dezake irakurleak hegoaldeko goi-nafarreraz ari dela.

⁸⁴ Koldo Zuazo (1998: 18).

rren eta Diman (sartaldean), Foruan (Busturialdean), Lekeition (sortaldean) eta Elgoibarren (tarteko hizkeran). Orobat, Erdialdeko euskaran ere badago, Tolosa, Ordizia eta Goierri, Lasarte-Oria, eta Pasaia, Oiartzun, Hondarribia eta Irunen (tarteko hizkeretan), eta sortaldeko Imotz, Basaburua Nagusian eta Larraunen ere bai.⁸⁵

Hizkera horietan guztietan, esan beharrik ez dago, heresia da lege, eta heretikoen ondoko heretikoek ere (*h*-rik gabeko) eresia baterako lekukotasunak gorde dituzte, Orreaga Ibarrak⁸⁶ jasotako nafar adibide hauek bezalaxe: *il tze-kote fréntian Andrései ta* (Mezkiritz); *gerra denboran iru aldiz eritu zioten* (Lintzoain); *erematen badirete kartzélera* (Lintzoain).

Ikus ditzagun, beraz, *i* bazterrekoaren ezaugarriak. Ezaugarriak zein diren jakiteko *i*-ri ez ezik, aditz laguntzaileari berari ere begiratu behar zaio, biei eragiten baitie bazterrekoa izateak, eta ez bietako bakar bati bakarrik. Mezkiritzeko hiztunak *Andresei ta* dio alde batetik eta *i* datibo kasu marka ezartzen dio Andres izenari, eta *il tze-kote* dio, bestetik, eta datibo komunztadura ageri da laguntzailean; orobat, *zuri ikusi dizut* adibidean, *zuri i* datiboduna dugu batetik eta bestetik (*k*)*i* eta bere osteko datibo komunztadura marka *-zu*. Behar bada, irakurlea gogoratuko da *i* kostaldekoaren kasuan, *i* kasu marka gordetzen duela zehar osagarriak (*niri eman*), baina aditz laguntzailean ezusteko absolutibo komunztadura egozten zaiola (*dit*-en ordezkoko *nau*). Ez dira, ez, horren desordenatuak *i* bazterrekoaren amodioak.

Deiturak gora eta behera ibili gara *i* kostatarraz hitz egin dugunean, eta gure *i* matxinoa, matxinoa den aldetik oraindik ere ezin bataiatu gabiltza. Alabaina, deitura bat edo beste jaso du, hala nola, *datibo osagarri bitxia*, Beatriz Fernández eta Milan Rezacen lanean edo *leísmo*, Milan Rezacen bakarkako lanen batean.⁸⁷ Ondoren azalduko dut leísmo zergatik. Deiturekin jarraituz, egokiena dudarik gabe, *osagarriaren markatze bereizgarria* da (ingelesez, *differential object marking*), gure *i* bazterrekoa munduko hizkuntzen (eta hizkeren) mapan kokatzen duelako. Tipologian ederto arakatutako fenomeno da Georg Bossong, Gilbert Lazard edo Judith Aissenen⁸⁸ lanei esker (beste batzuen artean), eta munduko hainbat hizkuntzatan gertatzen da, hala nola, hindiera/urduera, guaraniera, tigre (xasa) edo gaztelanian. Matxinada, ikusten duzue-nez ez da hemengoa bakarrik, non-nahikoa baino. *Get up, stand up: stand up for your rights!*⁸⁹

⁸⁵ Dena dela, eremu geografikoak baditu bere mugak: Arrasate, Bergara, Bermeo, Eibar, Ermua / Eitza, Leioa, Orío, Otxandio, Sopela eta Zegaman ez da *i* bazterrekoaren testigantzarik jasotzen (Beatriz Fernández eta Milan Rezac 2010: 12 oin-oharra).

⁸⁶ Orreaga Ibarra (2000: 155).

⁸⁷ Beatriz Fernández eta Milan Rezac (2010), eta Milan Rezac (2008a), hurrenez hurren.

⁸⁸ Georg Bossong (1991, 1998), Gilbert Lazard (2001) edo Judith Aissen (2003).

⁸⁹ *Get up, Stand up* (Bob Marley eta Peter Tosh), *The Wailers, Burnin*, Island / Tuff Gong, 1973.

Zein izan da orduan matxinada han eta hemen sortu duena? Erraz ulertuko da adibide bakarrekin: *zuri ikusi dizut* dioen hiztunak ez du inoiz ere **telebistari ikusiko* (*telebista ikusiko* baino). Horrek esan nahi duena da osagarri zuzen batzuek baino ezin dutela erakutsi *i* bazterreko hori, ez edozeinek, eta Michael Silversteinen⁹⁰ biziduntasun hierarkian goren daudenak direla, izatekotan, *i* bazterreko hori jasoko dutenak (hots, ni, zu edo Andres, baina ez, telebista, mapa edo zerumuga). Matxinoek ere badute euren kodea, eta diferentziak diferentzia, kode hori antzekoa da guztientzat: pertsonak (lehen edo bigarrena vs. hirugarrena izateak) edo biziduntasunak (biziduna vs. bizigabea izateak) eragin egiten die.⁹¹ Diman, esate baterako, lehen eta bigarren pertsonan baino ez dute *i* bazterrekoa (*ikusi dostesu* eta *ikusi dotzut*); hirugarren pertsonan inoiz ere ez (*Jon ikusi dot / *Joneri ikusi dotzat*). Lekeition, bestalde, hirugarren pertsonekin ere badute heretikoa (*Jon ikusi dot / Joneri ikusi dotzat*), baina bakar bakarrik biziduna, eta are gehiago, pertsona bada, zeren pertsona ez diren bizidunekin, abere edo animaliekin adibidez, ez baitago *i* bazterreko-rik (*txakurra ikusi dot / *txakurrari ikusi dotzat*); bizigabeekin, jakina, inoiz ere ez (*telebisiñoia ikusi dot / *telebisiñoari ikusi dotzat*). Euskararen herrian, oso gutxi dira txakurrak-eta *i* bazterrekoarekin marka dezaketenak, eta bere agerrialdi bakanez, hizkeren ezaugarria baino gehiago, hiztunen hautua eta hortaz aldakortasun idiolektala (hiztunetik hiztunera dagoen aldakortasuna) erakusten dutela dirudi.

Gainerakoan, *i* bazterrekoa leku batzuetan aukerakoa-edo da, Lekeition bigarren eta hirugarren pertsonekin bezala, baina beste leku batzuetan derrigorrezkoa da, Diman adibidez. Eta derrigorrezkoa den herri eta hizkeretan, ez dira gorde beste hizkera batzuetan ondo gordeta dauden adizkiak, hots, *ikusi dostesu* eta *ikusi dotzut* dioen dimoztarrak ez du bere hizkeran euskara batua- ren edo euskara orotarikoaren *ikusi nauzu* eta *ikusi zaitut* formen arrastorik. Galdu egin dira eta puzzlea soildu egin da, baina ez beti, beste batzuetan korapilatu egin baita: badira *i* kostaldekoa eta *i* bazterrekoa biltzen dituzten hizkerak, Basaurikoa esate baterako. Jon Arretxek jasotako datuak dira ondokoak: *lagunek ekartzen dotzie kotxien* (*i* bazterrekoa), *gausa asko ekarten gatus* (*i* kostaldekoa), eta beste forma hibrido are matxinoagoa, *aurok guri yo in gatus* (*i* bazterrekoa kasu markapenean eta *i* kostaldekoa dirudiena aditz laguntzailean). Bai, *hi hintzena / bi arraia zaharren gurutzaketa*.⁹²

Eta gauzak zer diren, batzuen begietara heretiko hutsa dena, dogma hutsa da bestetzuentzat. Pentsa, gaztelaniaz, Jon ikusi dudala adierazteko, *he visto a*

⁹⁰ Michael Silverstein (1976).

⁹¹ Ez dira pertsona eta biziduntasuna bakarrik *i* bazterrekoaren agerpenean eragiten duten ezaugarriak (edo tasunak). Bestelako tasunetarako, hala nola, zehaztasunerako, ikus Céline Mou-nole (2008), Beatriz Fernández eta Milan Rezac (2010, 2013) eta Ane Odria (2012).

⁹² *Hi hintzena*. Bernardo Atxaga (1978) *Etiopia*, Pott Liburutegia. Ruperren ahotsean, ahal dela (Ruper Ordorika, *Hautsi da anphora*, Xoxoa, 1980).

Jon esaten dugu penitentziarik gabe, eta ez **he visto Jon*. A preposizioa ezin bestekoa da halakoetan, hau da, zehar osagarria markatzeko erabiltzen den preposizio bera ezartzen diogu osagarri zuzenari ere. Bestalde, Euskal Herriko gaztelanian, gure gaztelanian, *has visto a Jon?* (*Jon ikusi duzu?*) galdetzen badigute, *no, no le he visto* (*ez, ez dut ikusi* edo hobeto esanda, *ez, ez diot ikusi*) erantzuten dugu, eta *le* pertsona izenordain atono edo azentugabe horrek, gramatikariok *klitikoa* deitzen dugunak, datibo forma du. Alde horretatik, *i* bazterrekoaren laguna da. Gaztelania orotarikoan eta estandarrean, aldiz, *no, no lo he visto*, esaten da, *lo* alegia *gure le*-ren orde, eta guretat kasurik onean arrotza da forma *lo*-duna. Bada, horixe da hain zuzen, legea betetzen duena, ez gurea. Horrexegatik gara bertoko gaztelaniadunok *leistak* (*le*-ren erabiltzaile matxino samarrak). Harrigarria dena da leísmoaren eta gure *i* bazterrekoaren aurrean hitzunik duten pertzepzioa eta jarrera. Inés Fernández-Ordoñezek,⁹³ *leísmo* bezalako fenomenoak xehetasun miragarriaz aztertu dituen dialektologo madrildarrak, dioenez, hizkera leistik dotoreziaren eta prestigioaren erakusgarritzat hartu izan dira gaztelaniaren literatura oparoan. Hainbestera izan dira entzute handikoak non jatorriz leistik ez diren idazleek ere, idazkeran leísmo hobetsi izan duten, hala nola, Ramón María del Valle-Inclán galiziarrek. Gauzei nola begiratzen zaien, horixe da kontua, eta ez gauzak benetan zer diren.

Amaiera. *i* eta *ni*

Adikzioak konponbide zaila du. Sendabiderik ere ez duenik ez nuke esango, ajea bera sendabelarra ez bada, bederen. Heriozko mendetasuna ez den bitartean, gaitz erdi. Kontua da sendatu nahi ote dudan hizkuntzaren, euskararen mendetasun honetatik, *i*-tik *i*-ra ibiltzeko era gaixoti honetatik. Nola baina, hizkuntzak biltzen baditu munduko misteriorik ederren eta ezkutukoenak eta *i* bada sarbidea? Nola liteke autobideko eta aireportuko ilaran zain eta zain egotea, nora eta amaren sorlekura edo Antipodetara joateko, norberaren baitara egin badaiteke bidaiarik gogoangarriena?

Besterik da adikzio hori maitasunetik badator, maitasun istorio batzuek, behinik behin, amaiera baitute. Maitegabetzen gara maitemindu ginen ezusteko modu berean. Ez du zertan arrazoi jakinik egon behar, baina arrazoiak jakinak dira. Eta guztien artean, arrazoi txikienak dira erabakigarrienak: coca-cola koloreko zure begiek⁹⁴ aspaldi hartako txinparta itsugarri hura jada ez izatea, adibidez. Amodioaz dakienak desamodioaz ere badaki. Eta sarritan,

⁹³ Inés Fernández-Ordoñez (1999: 1386-1388).

⁹⁴ *Por la boca vive el pez* (Adolfo Cabrales), Fito y los Fitipaldís, *Por la boca vive el pez*, DRO / Warner Music, 2006.

desamodioak garamatza, hain zuzen, amodio berrira, adikzio berrira alegia. Biologikoki, gainera, hala beharko luke, maitasunetik maitasunera igarotzeko programatuta omen gaude eta,⁹⁵ hizkuntzarako programatuta gauden bezalaxe. Bai, *beste begi batzuetan ikusi zaituztela esan didate*.⁹⁶ Orduetik aurrera ez da *i*-rik izango, jo dezagun *z* baino, *i* baino lehenago, *k* zen bezala. Bai, maitasunaz ari garela, adikzioak amaiera (eta hortaz, sendabidea) izan ohi du.

Adikziora naramana maitasuna izan zein ez, ez dut errehabilitaziora joateko asmorik (*ez, ez, ez*).⁹⁷ Beharbada, berez sendatuko da gaitza. Beharbada ez. Beharbada betiereko istorioa, betiereko mendetasuna izango da *i* eta nire artekoa, betierekoa zeren ez baita ni *i* gabe, ezta ere hi gabe ni.⁹⁸

Bibliografia I. Aipamenak

AISSEN, JUDITH (2003), «Differential object marking: Iconicity vs. Economy.» *Natural Language and Linguistic Theory* 21, 435-483.

ALBIZU, PABLO (1998), «Generalized Person-Case Constraint: A Case for a Syntax-Driven Inflectional Morphology.» In Myriam Uribe-Etxebarria eta Amaia Mendikoe-txea (arg.), *Theoretical Issues on the Morphology-Syntax Interface. 'Julio Urkixo' Euskal Filologi Mintegiaren Urtekariaren Gehigarriak (ASJU)* XL. Donostia / Bilbo: Gipuzkoako Foru Aldundia / UPV/EHU, 1-33.

——— (2001), «Datibo sintagmen izaera sintaktikoaren inguruan: eztabaidarako oinarritzko zenbait datu.» In Beatriz Fernández eta Pablo Albizu (arg.), *Kasu eta Komuntaduraren gainean. On Case and Agreement*. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua, 49-69.

⁹⁵ David P. Barash eta Judith E. Lipton (2001).

⁹⁶ *Me dicen que te han visto en otros ojos... Tan lejos* (Kepa Murua), Gari, *Gari ta Otoiz gure alde*, Iparretarrak, 2002.

⁹⁷ *Rehab* (Amy Winehouse), Amy Winehouse, *Back to Black*, Island, 2006.

⁹⁸ *Post scriptum*: Jon Otxoantzanari / Iñaut, Jon eta Eneko Amezagari / Algortako Portu Zaharreko koadrilako (eta inguruko) lagunei: Idoia Bañales eta Iker eta Jone Lores; Monika Eriz eta Jon, Irene eta Ainhoa Ezkurra; Olatz Escudero eta Ander, Lier, Ager eta Danel Isasi; Manuela Expósito eta Iñaki Iriondo; Helena Franco eta Rober, Kerman, Oihan eta June Díez; Paddy Franco eta Kerman, Gorka eta Asier Zabala; Bego Galdeano eta Endika, Irati eta Markel Guarrotxena; Karmen Galdeano eta Larraitx Aldazabal; Teresa Sanchez eta Eleder, Ekain eta Aner Barañano; Agurtzane Goiriena eta Kepa, Beñat, Izaro eta Laia Petralanda; Eli Guarrotxena eta Pello, Arai eta Txabi Etxebarria; Iratxe Labajo; Nagore Iriondo, Ander Cuñado eta Asier Iriondo; Uxune Iriondo eta Mitxel, Xabier, Ander eta Andoni Sarasketa; Leire Iriondo, Iñaki Astoreka 'Zantarra' eta Ibon Astoreka; Batirtze Iturrieta, Gabi Basañez eta Maddi Iturrieta; Miren Kareaga eta Apolinar, Garazi eta Amaia Bilbao; Zelai Nikolas eta Xabier, Aratz, Izaro eta Oier Errementeria; Maite Petralanda eta Andoni, Oier eta Lur Garai; Marian Sagasti eta Rober Campus; Ana Sagasti, Jon Urrutia 'Txinin' eta Ander eta Gorka Urrutia; Marisol Trebiño eta Fernando, Ainhoa eta Leire Mijangos; Maite Uribarri eta Aitzol, Maider eta Joana Barañano; Gina Valor eta Mikel, Eider eta Unai Mendiburu; Andone Zelaia eta Aitor, Ander, Pello eta Mikel Arrate; Aitor Gonzalbo; eta azkenik, edo atzekoz aurrera lehenik, *i*-ri, eni sufriarazleari.

- ALBIZU, PABLO ETA BEATRIZ FERNÁNDEZ (2006), «Licit and illicit ERG-DAT pairings.» In Beatriz Fernández eta Itziar Laka (arg.), *Andolin gogoan. Essays in honour of Professor Eguzkitza*. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua, 69-96.
- ALTUBE, SEVERO (1929/1975), *Erderismos*. Bilbo: Indauchu Argitaletxea.
- ARESTI, GABRIEL (c. 1970), «Zoroaren uzta. Lehen partea: Axularren aditza Gabriel Arestik bildua.» eskuizkribua.
- (1972), «Flexiones verbales empleadas por Leizarraga de Briscous, en sus traducciones vascas de 1571.» *FLV* IV-11, 157-194.
- ARIZTIMUÑO, BORJA (2013), «Lazarragaren eskuizkribuko adizki batzuez (euskal aditz jokoaren kronologia erlatibo baterantz).» In Ricardo Gómez eta Maria Jose Ezeizabarrena (arg.), *Eridenen du zerzaz kontenta. Sailkideen omenaldia Henrike Knörr irakasleari (1947-2008)*. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [argitaratzear]
- ARREGI, EURÍDICE (2003a), «On Dative Alternations in Basque.» eskuizkribua, UPV/EHU.
- (2003b), «On Possessor Raising effects in Basque.» eskuizkribua, UPV/EHU.
- ARREGI, EURÍDICE ETA JAVIER ORMAZABAL (2003), «Aditz ditransitiboen barne-egitura.» In Jose Mari Makazaga eta Bernard Oyharçabal (arg.), *Euskal gramatikari buruzko eta literaturari buruzko ikerketak XXI. mendearen atarian. Gramatika gaiak*. Iker-14 (I). Bilbo: Euskaltzaindia, 119-136.
- ARTEATX, IÑIGO, XABIER ARTIAGOITIA eta ARANTZAZU ELORDIETA (arg.) (2008), *Antisimetriaren hipotesia vs. buru parametroa: euskararen oinarritzko hitz hurrenkera ezbaian*. Bilbo: UPV/EHU.
- ARTIAGOITIA, XABIER (2001), *Hatsarreak eta parametroak lantzen*. Gasteiz: Arabako Foru Aldundia.
- ATXAGA, BERNARDO (1978), *Etiopia*. Pott Liburutegia.
- (1984), *Sugeak txoriari begirutzen diorean*. Donostia: Erein.
- BAKER, MARK (1988), *Incorporation: A theory of grammatical function changing*. Chicago: University of Chicago Press.
- (1996), *The polysynthesis parameter*. New York: Oxford University Press.
- (2001), *The atoms of language*. New York: Basic Books.
- (2008), «The macroparameter in a microparametric world». In Theresa Biberauer (arg.), *The limits of syntactic variation*. Amsterdam: John Benjamins, 351-374.
- BARASH, DAVID P. eta JUDITH E. LIPTON (2001), *The myth of monogamy: Fidelity and infidelity in animals and people*. W.H. Freeman & Co. [gaztelaniazko itzulpena: 2003. *El mito de la monogamia: la fidelidad y la infidelidad en los animales y en las personas*. Madrid: Siglo XXI.]
- BENVENISTE, ÉMILE (1966), «'Être' et 'avoir' dans leurs fonctions linguistiques.» *Problèmes de linguistique générale*. Gallimard, 187-207.
- BOECKX, CEDRIC (2011), «Approaching parameters from below» In Cedric Boeckx eta Anna Maria di Sciullo (arg.), *The Bilingual enterprise: New perspectives on the evolution and nature of the human language faculty*. Oxford: Oxford University Press. [argitaratzear]
- BONAPARTE, LOUIS LUCIEN (1869), *Le verbe basque en tableaux*. [berrargitaraturik in *Opera omnia vasconice* (I): 221-242. Bilbo: Euskaltzaindia. 1991]
- BORER, HAGIT (1984), *Parametric syntax: case studies in Semitic and Romance languages*. Dordrecht: Foris.

- BOSSONG, GEORG (1991), «Differential object marking in Romance and beyond.» In Dieter Wanner eta Douglas A. Kibee (arg.), *New analyses in Romance linguistics*. Amsterdam / Philadelphia: John Benjamins, 143-170.
- (1998), «Le marquage differential de l'object dans les langues d'Europe.» In Jack Feuillet (arg.), *Actance et valence dans les langues d'Europe*. Berlin/New York: Mouton de Gruyter, 193-258.
- CANO, HARRAITZ (2011), *Twist*. Zarautz: Susa.[gaztelaniazko itzulpena: 2013. *Twist*. Barzelona: Seix Barral.]
- CORTAZAR, JULIO (1963), *Rayuela*. Madrid: Cátedra.
- CHOMSKY, NOAM (1981), *Lectures on government and binding*. Dordrecht: Foris.
- (1993), «A minimalist program for linguistic theory.» In Kenneth L. Hale eta Samuel J. Keyser (arg.), *The view from Building 20: Essays in linguistics in honor of Sylvain Bromberger*. Cambridge, MA: MIT Press, 1-52.
- (1995), *The minimalist program*. Cambridge (Mass.): The MIT Press.
- BROWN, DEE (2007), *Bury My Heart at Wounded Knee*. New York: Henry Holt and Company, LLC.[euskarazko itzulpena: 2003. *Ehortzi ezazue ene bihotza Wounded Kneen*. Iruñea: Txalaparta.]
- DUGUINE, MAIA (2010), *Argumentu isilak eta hizkuntz aldakortasuna*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- ELORDIETA, ARANTZAZU (2001), *Verb Movement and Constituent Permutation in Basque*. Utrecht: LOT.
- ETXEPARE, BERNARD (2012), *Linguae Vasconum Primitiae. The First Fruits of the Basque Language, 1545*. Reno, Nevada: Center for Basque Studies.
- ETXEPARE, RICARDO (2003), «Valency and argument structure in the Baque Verb.» In José Ignacio Hualde eta Jon Ortiz de Urbina (arg.), *A grammar of Basque*. Berlin / New York: Mouton de Gruyter, 363-425.
- EUSKALTZAINDIA (1987), *Euskal Gramatika. Lehen urratsak II*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- (1993), *Euskal gramatika laburra: perpaus bakuna*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- FERNANDEZ, BEATRIZ (2001), «Absolutibo komunztaduradun ergatiboak, absolutibo komunztaduradun datiboak: Ergatiboaren Lekualdatzetik Datiboaren Lekualdatzera.» In Beatriz Fernández eta Pablo Albizu (arg.), *On Case and Agreement. Kasu eta Komunztaduraren gainean*. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua, 87-112.
- (2004), «*Gustatzen nau gustatzen dizu*: Aditz laguntzaile eta komunztadura bixiak perpaus ez-akusatiboetan.» In Beatriz Fernández eta Pablo Albizu (arg.), *Euskal gramatika XXI. mendearen atarian: Arazo zaharrak, azterbide berriak*. Gazteiz: Arabako Foru Aldundia, 89-112.
- FERNÁNDEZ, BEATRIZ eta MARIJOSE EZEIZABARRENA (2003), «Itsasaldeko solezismoa, Datiboaren Lekualdatzearen argipean.» In Jesus Mari Makatzaga eta Beñat Oihartzabal (arg.), *Euskal gramatikari eta literaturari buruzko ikerketak XXI. mendearen atarian. Gramatika gaiak. Iker 14-1*. Bilbo: Euskaltzaindia, 255-278.
- FERNÁNDEZ, BEATRIZ eta JON ORTIZ DE URBINA (2007), *Hizkuntzari itzulia 80 hizkuntzatan*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- (2010), *Datiboa hiztegian*. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.
- (2012), «Dative (first) complements in Basque.» In Ernestina Carrilho eta Beatriz Fernández (arg.), *Journal of Portuguese Linguistics*. 11-1, 83-98.

- FERNÁNDEZ, BEATRIZ eta MILAN REZAC (2010), «Datibo osagarri bitxiak eta Datiboaren Le-kualdatzea: *ari nai diyot* eta *kanta egin nazu* bidegurutzean.» In Beatriz Fernández, Pablo Albizu eta Ricardo Etxepare (arg.), *Euskara eta euskarak: aldakortasun sintaktikoa aztergai. 'Julio Urkixo' Euskal Filologi Mintegiaren Urtekariaren Gehigarriak (ASJU)* LII. Bilbo: UPV/EHU, 113-149.
- (2013), «Differential object marking in Basque varieties.» In Beatriz Fernández eta Jon Ortiz de Urbina (arg.), *Microparameters in the grammar of Basque*. eskuizkribua, UPV/EHU eta Deustuko Unibertsitatea.
- FERNÁNDEZ-ORDOÑEZ, INÉS (1999), «Leísmo, laísmo y loísmo.» In Ignacio Bosque eta Violeta Demonte (arg.), *Gramática descriptiva de la lengua española I*. Madrid: Espasa Calpe, 1317-1394.
- FISHER, HELEN (2004), *Why we love. The nature and chemistry of romantic love*. New York: St. Martin's Griffin.
- GOENAGA, PATXI (1978), *Gramatika bideetan*. Donostia: Erein.
- GÓMEZ, RICARDO (1994), «Euskal aditz morfologia eta hitzordena: VSO-tik SOV-ra?» In Jean Orpustan (arg.), *Colloque international de linguistique basque: Le basque parmi les autres langues: influences, comparaisons*. Bordeaux & Baiona: Univ. de Bordeaux III & CNRS, 93-114.
- GÓMEZ, RICARDO eta KOLDO SAINZ (1995), «On the origin of the finite forms of the Basque verb.» In José Ignacio Hualde, Joseba A. Lakarra eta Robert L. Trask (arg.), *Towards a history of the Basque language*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins, 235-274.
- HUALDE, JOSÉ IGNACIO (2003), «Verbs. Finite forms.» In José Ignacio eta Jon Ortiz de Urbina (arg.), *A grammar of Basque*. Berlin/New York: Mouton de Gruyter, 205-246.
- IRIZAR, PEDRO DE (1981), *Contribución a la Dialectología de la Lengua Vasca*, 2 ale, Donostia: Gipuzkoako Kutxa.
- (1991), *Morfología del Verbo Auxiliar Guipuzcoano*, 2 ale, Bilbo: Euskaltzaindia.
- (1992), *Morfología del Verbo Auxiliar Alto Navarra Septentrional*, Iruñea: Euskaltzaindia eta Nafarroako Gobernua.
- (1997), *Morfología del Verbo Auxiliar Labortano*, Iruñea: Euskaltzaindia eta EHU/UPV.
- (1999), *Morfología del Verbo Auxiliar Bajo Navarra Occidental*, Iruñea: Euskaltzaindia & EHU/UPV.
- KAYNE, RICHARD S. (1993), «Toward a modular theory of auxiliary selection.» *Studia Linguistica*. 47 (1), 3-31.
- (2000), *Parameters and Universals*. New York: Oxford University Press.
- (2005), «Some notes on comparative syntax, with special reference to English and French.» In Guglielmo Cinque eta Richard S. Kayne (arg.), *The Oxford Handbook of Comparative Syntax*. New York: Oxford University Press, 3-69.
- LAFITTE, PIERRE (1944), *Grammaire Basque (Navarro-Labourdin Littéraire)*. Donostia: Elkar, 1979.
- LAFON, RENÉ (1944), *Le système du verbe basque au XVIe siècle*. Bordeau: Editions Delmas 2 vol.[berragitaraturik in Donostia: Elkar, 1980]
- LAKA, ITZIAR (1993), «The structure of inflection: A case study in X⁰ syntax.» In Jose Ignacio Hualde eta Jon Ortiz de Urbina (arg.), *Generative Studies in Basque Linguistics*. Amsterdam / Philadelphia: John Benjamins Publishing Co., 21-70.
- (1996), *A Brief Grammar of Euskara, the Basque Language*. [Interneten eskuragarri: <http://www.ehu.es/grammar>]

- LAZARD, GILBERT (2001), «Le marquage différentiel de l'object.» In Zwei Teilbände, Martin Haspelmath, Ekkehard Köning, Wulf Oesterreicher & Wolfgang Raible (arg.), *Language Typology and Language Universals. An International Handbook*. 2 vol. Berlin / New York: Mouton de Gruyter, 873-885.
- LIGHTFOOT, DAVID (1999), *The development of language: Acquisition, change and evolution*. Oxford: Blackwell.
- McFADDEN, THOMAS (2007), «Auxiliary selection». *Language and Linguistics Compass*. vol 1, 6, 571-769.
- MENDELSON, EDWARD (arg.) (2008), *The Complete Works of W.H. Auden: Prose*. Volume II. 1939-1948 Princeton University Press.
- MITXELENA, KOLDO (1960), «Gipuzcoano y vasco». In Joseba Andoni Lakarra eta Iñigo Ruiz Arzalluz (arg.), (2011) *Luís Michelena. Obras Completas. VII. Fonética y Fonología, Morfosintaxis y Dialectología*, 697-700.
- MITXELENA, KOLDO eta IBON SARASOLA (1989-2005), *Diccionario General Vasco. Orotariko Euskal Hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- MONTOYA, ESTIBALIZ (1998), «Objektu bikoitzeko egiturak euskaraz.» eskuizkribua, UPV/EHU.
- MOUNOLE, CÉLINE (2008), «Evolution of the transitive verbs in Basque and apparition of datively marked patients.» In Gilles Authier eta Katharina Haude (arg.), *Ergativity and Voice*, Berlin / New York: Mouton de Gruyter, 355-379.
- (2011), *Le verbe basque ancien: étude philologique et diachronique*. doktore tesia, UPV/EHU eta Michel de Montaigne - Bordeaux III.
- NEWMeyer, FREDERICK J. (2004), «Against a parameter-setting approach to language variation». In Pierre Pica, Johan Rooryck eta J. van Craenenbroek (arg.), *Language Variation Yearbook*. vol. 4. Amsterdam: John Benjamins, 181-234.
- (2005), *Possible and probable languages. A generative perspective on Linguistic Typology*. Oxford University Press.
- (2006), «A rejoinder to 'On the role of parameters in Universal Grammar: A reply to Newmeyer' by Ian Roberts and Anders Holmberg». [Interneten eskuragarri: <http://ling.auf.net/lingBuzz/000248>]
- ODRIA, ANE (2012), *What lies behind differential Object Marking: a Basque dialect survey*. master tesia, UPV/EHU. In Pello Salaburu, Patxi Goenaga eta Ibon Sarasola (arg.), *Sareko Euskal Gramatika* [Interneten eskuragarri: http://www.ehu.es/seg/_media/morf/5/2/1/9/sak/aneodriatesia.pdf]
- OIHARTZABAL, BEÑAT (2007a), «Argument Structure Building: Applicative Heads in Basque.» *Workshop on Argument Structure and Syntactic Relations*, 2007/05/23-25. eskuorriak, CNRS-IKER UMR 5478.
- (2007b), *Basque ditransitives*. eskuizkribua, CNRS-IKER UMR 5478.
- ORTIZ DE URBINA, JON (1989), *Parameters in the grammar of Basque*. Dordrecht: Foris.
- PINKER, STEVEN (2010), *Hizkuntza-sena*. ZIO bilduma. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua
- PYLKKÄNEN, LYNA (2008), *Introducing arguments*. Cambridge (Mass.): MIT.
- REBUSCHI, GEORGÉS (1984), *Structure de l'énoncé en basque*. Paris: SELAF.
- REZAC, MILAN (2006), *Agreement displacement in Basque*. eskuizkribua, UPV/EHU. [Interneten eskuragarri: <http://www.umr7023.cnrs.fr/spip.php?article675>].

- (2008a), «The syntax of eccentric agreement: The Person Case Constraint and Absolutive Displacement in Basque.» *Natural Language and Linguistic Theory* 26, 61-106.
- (2008b), «The forms of dative displacement: from Basauri to Itelmen». In Xabier Artiagoitia eta Joseba A. Lakarra (arg.), *Gramatika jaietan: Patxi Goenagaren omenez. 'Julio Urkixo' Euskal Filologi Mintegiaren Urtekariaren Gehigarriak (ASJU)* LII. Bilbo: UPV/EHU, 709-724.
- REZAC, MILAN eta BEATRIZ FERNÁNDEZ (2013), «Dative Displacement in Basque.» In Beatriz Fernández eta Ricardo Etxepare (arg.), *Variation in datives: A micro-comparative perspective*. New York: Oxford University Press, 256-282.
- RIZZI, LUIGI (1982), *Issues in Italian syntax*. Dordrecht: Foris.
- ROBERTS, IAN eta ANDERS HOLMBERG (2005), «On the role of parameters in Universal Grammar: A reply to Newmeyer». In H. Broekhuis, N. Corver, M. Huybregts, U. Kleinhenz eta J. Koster (arg.), *Organizing grammar: Linguistic studies in honor of Henk van Riemsdijk*. Berlin: Mouton de Gruyter, 538-553.
- (2010), «Introduction: parameters in minimalist theory». In Theresa Biberauer, Anders Holmberg, Ian Roberts eta Michelle Sheehan (arg.), *Parametric variation: Null subjects in Minimalist Theory*. Cambridge University Press, 1-57.
- SALABURU, PELLO, PATXI GOENAGA eta IBON SARASOLA (arg.) (2011-), *Sareko Euskal Gramatika*. UPV/EHUko Euskara Institutua. [Interneten eskuragarri: <http://www.ehu.es/seg/>]
- SARASOLA, IBON (1997), *Euskararen ajeak*. Zarautz: Alberdania.
- SARASOLA, IBON, PELLO SALABURU, JOSU LANDA eta JOSU ZABALET (2007), *Ereduzko prosa gaur* [Interneten eskuragarri: <http://www.ehu.es/euskara-orria/euskara/ereduzkoa/>]
- SARASOLA, IBON, PELLO SALABURU eta JOSU LANDA (2013), *Egungo testuen corpusa* [Interneten eskuragarri: <http://www.ehu.es/etc/>]
- SILVERSTEIN, MICHAEL (1976), «Hierarchy of features and ergativity.» Robert M.W. Dixon (arg.), *Grammatical categories in Australian languages. Linguistic Series 22*, Canberra: Australian Institute of Aboriginal Studies, 112-171.
- SCHUCHARDT, HUGO (1893), «Sobre la formación de las flexiones de relación del verbo vasco». [1972. *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País* 28, 217-337].
- SUMMER INSTITUTE OF LINGUISTICS (SIL) (arg.) (2013), *Ethnologue. Languages of the World*. [Interneten eskuragarri: www.ethnologue.com/]
- TRASK, ROBERT L. (1977), «Historical syntax and Basque verbal morphology: Two hypothesis». In W.A. Douglass Jr., R.W. Etulain & W.H. Jacobsen (arg.), *Anglo-American Contributions to Basque Studies: Essays in Honor of Jon Bilbao*. Desert Research Institute Publications on the Social Sciences, nº 13, 203-217.
- (1981), «Basque Verbal Morphology». In *Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak. Iker 1*. Bilbo: Euskaltzaindia, 285-304.
- (1995), «On the history of the non-finite forms in Basque.» In José Ignacio Hualde, Joseba Andoni Lakarra eta Robert L. Trask (arg.), *Towards a history of the Basque language*. Amsterdam / Philadelphia: John Benjamins, 207-234.
- WILDE, OSCAR (1895), *The importance of being earnest. A trivial comedy for serious people*. London.
- ZUAZO, KOLDO (1997), «Oiertzungo hizkeraren kokagunea.» *FLV* 39, 76, 397-425.

- (1998), «Nafarroako euskal hizkerak». In Iñaki Camino (arg.), *Nafarroako hizkerak. Nafarroako Euskal Dialektologiako Jardualdietako Agiriak*. Bilbo: UEU, 1-21.
- (1999), «Baigorriko euskara kokatzeari buruz.» *Lapurdum*, 4, 247-277.
- (2000), *Euskararen sendabelarrak*. Zarautz: Alberdania.
- (2003), *Euskalkiak, herriaren lekukoak*. Donostia: Elkar.

Bibliografia II. Herri hizkeren aipamenak

- Aezkoa*: Camino, Iñaki (1997), *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- Ahetze*: Cabodevilla, Josu (1991), *Aetzen Uskara*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- Amaiur*: N'Diaye, Genevieve (1970), *Structure du dialecte basque de Maya*. Mouton: The Hague.
- Antzuola*: Larrañaga, Jone. (1998), *Antzuolako hizkera*. Antzuola: Antzuolako Udala.
- Arrasate*: Elortza, Jerardo, Eneritz Garro, Jesus M. Garai, José Luis Ormaetxea eta Esteban Plazaola (1999), *Arrasateko euskara*. Arrasate: Arrasateko Udala.
- Basauri*: Arretxe, Jon (1994), *Basauriko euskara*. Basauri: Basauriko Udala.
- Bergara*: Elexpuru, Juan Martin (1988), *Begarako Euskara*. Bergara: UNED.
- Bermeo*: Egaña, Aintzane (1984), «Bermeoko aditzaren azterketa lorratzak.» *Bermeo* 4: 13-43.
- Beskoitze*: Duhau, Henri (1993), *Hasian hasi: Beskoitzeko Euskara*. Donibane Lohitzune: Irkus.
- Baztan* : Salaburu, Pello eta Maite Lakar (2006), *Baztango mintzoa: gramatika eta hiztegia*. Iruñea / Bilbo : Nafarroako Gobernua / Euskaltzaindia.
- Deba 1*: Zuazo, Koldo (1999), *Deba Ibarreko Euskeria*. Antzuola: Antzuolako Udala.
- Deba 2*: Zuazo, Koldo (2002), *Deba ibarretik euskararen herrira*. Eibar: Badihardugu Euskera Alkartia.
- Eibar 1*: Eibarko Euskara Mintegia (1998), *Eibarko aditza*. Eibarko Udala.
- Eibar 2*: Etxebarria, Toribio (1998), *Flexiones verbales y lexicon del euskera dialectal de Eibar*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Elgoibar 1*: Makatzaga, Jesus Mari (2007), *Elgoibarko Euskara. Elgoibarko berbak, egiturak eta irakurgaiak*. Elgoibar: Elgoibarko Udala.
- Elgoibar 2*: Makatzaga, Jesus Mari (2011), *Elgoibarko ahozko euskara*. IKER 25. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Ermua*: Aranberri, Fernando (1996), *Ermua eta Eitzako Euskara*. Ermua: Ermuko Udala.
- Erroibar*: Ibarra, Orreaga (2000), *Erroibarko eta Esteribarko hizkera*. Iruñea: Nafarroako Unibertsitate Publikoa
- Erronkari*: Angos, Alberto (2005), *Erronkarieta I: Gramatika*. Donostia: Hiria.
- Forua*: Gaminde, Iñaki (1992), *Foruko euskararen morfosintaxiaz*. Forua: Foruko Udala.
- Hondarribia/Irun*: Sagarzazu, Txomin (2005), *Hondarribiko eta Irungo euskara*. Irun: Alberdania.
- Igorre*: Iglesias, Aitor (2005), *Igorreko hizkeraren azterketa dialektologikoa*. eskuizkribua, UPV/EHU.
- Imoz*: Apalauza, Amaia (2008), *Imozko euskara*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.

- Larresoro*: Epelde, Irantzu (2004), «Larresoroko gaur egungo euskara.» *Euskera*. 49:2. 663-677.
- Lasarte-Oria*: Lakaba, Ana, Maria Eugenia Azurza eta Juan Inazio Bereziartu (1996), *Lasarte-Oriako euskararen azterketa*. Lasarte-Oria: Lasarte-Oriako udala.
- Laudio*: Urkijo Orueta, Natxu (1994), *Zenbait apunte Laudioko euskaraz*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- Lazkao*: Hurtado, Irene (2001), *Goierriko eta Tolosalde hegoaldeko hizkerak*. Tolosa: Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkarte, Maizpide Euskaltegia eta Lazkaoko Udala.
- Leioa*: Gaminde, Iñaki (1989), *Leioako euskararen gramatikaz*. Leioa: Leioako udala.
- Lekeitio*: Hualde, Jose Ignacio, Gorka Elordieta & Arantzazu Elordieta (1994), *The Basque dialect of Lekeitio, Julio Urkixo' Euskal Filologi Mintegiaren Urtekariaren Gehigarriak (ASJU) XXXIV*. Bilbo eta Donostia: Euskal Herriko Unibertsitatea / Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Mallabi*: Mugarza, Pello (2006), *Mallabiko euskara*. Mallabiko Udala.
- Marquina*: Rollo, William (1925), *The Basque dialect of Marquina*. Amsterdam: H.J. Paris.
- Oiartzun*: Fraile Ugalde, Idoia eta Ainhoa Fraile Ugalde (1996), *Oiartzungo hizkera*. Oiartzun: Oiartzungo Udala.
- Oñati*: Badihardugu (2005), *Deba ibarreko aditz-taulak: Oñati* [Interneten eskuragarri: www.badihardugu.com/argitalpenak/aditz_taulak]
- Ondarroa*: Rotaetxe, Karmele (1977), *Estudio estructural del euskera de Ondarroa*. Durango: Leopoldo Zugaza.
- Ordizia*: Garmendia, Larraitz eta Karmele Etxabe (2004), *Ordiziako euskara: garai bateko bizimodua eta gaurko hizkuntza-egoera*. Ordizia: Ordiziako Udala.
- Orio*: Iturain, Iñaki eta Loren Loida (1995), *Orioko euskara*. Orio: Orioko Udala.
- Otxandio*: Burguete, Xabier eta Iñaki Gaminde (1991), *Otxandioko euskaraz*. Otxandio: Otxandioko Udala / Bizkaiko Foru Aldundia.
- Pasaia*: Agirretxe, Joxe Luix, Mikel Lersundi eta Ortzuri Olaetxea (1998), *Pasaia hizkera*. Pasaia: Pasaiko Udala.
- Sopela*: Gaminde, Iñaki, Bene Markaida eta Eukene Markaida (1993), *Sopelako euskaraz*.
- Ugao*: Salazar, Belene (2001), *Ugao euskara. Ugao euskararen azterketa etnolinguistikoa*. Bilbo: Ediciones Beta.
- Ultzama*: Ibarra, Orreaga (1995), *Ultzamako hizkera. Inguruko euskalkiekiko harremanak*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- Zaldibia*: Etxabe, Karmele eta Larraitz Garmendia (2003), *Zaldibiako euskara: Bertako bizimodua, ohiturak, eta pasadizoak*. Zaldibia: Zaldibiako Udala.
- Zamudio*: Gaminde, Iñaki (2000), *Zamudio barbarik berba*. Bilbo: Labayru Ikastegia.
- Zeberio*: Etxebarria, Juan Manuel (1996), *Zeberio haraneko euskararen azterketa etnolinguistikoa*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.
- Zegama*: Azurmendi, Joxe Migel (1998), *Zegamako euskara*. Lazkao: Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkarte.

Diskografia

Aitormena (Josu Zabala), Hertzainak, *Amets prefabrikatuak*, Oihuka, 1989.

- Anti todo* (Iosu Expósito, Juanma Suárez eta Pako Galán), Eskorbuto, *Anti todo*, Discos Suicidas, 1986.
- Bitch (Nothing in between)*, Meredith Brooks, *Blurring the edges*, Capitol Records, 1997.
- Get up, Stand up* (Bob Marley eta Peter Tosh), The Wailers, *Burnin*, Island / Tuff Gong, 1973.
- Hi hintzena* (Bernardo Atxaga), Ruper Ordorika, *Hautsi da anphora*, Xoxoa, 1980.
- Intermezzoa A nagusian, Op. 118, 2 zkia*, Johannes Brahms, Radu Lupu, DECCA, 1987.
- Ispiluaren aurean* (Dionisio Díaz), Hertzainak, *Amets prefabrikatuak*, Oihuka, 1989.
- Kiromantzidxa* (Joseba Sarrionaindia), Mikel Laboa, *Gernika Zuzenean*, Elkar, 1999.
- Kontrapas* (Bernard Etxepare), Oskorri, *Mosen Bernat Etxepare 1545*, CBS, 1977.
- Musturrek sartunde*, Gatibu, *Zoramena*, Oihuka, 2003.
- Negua joan da ta*, Zea Mays, *Era*, Bonberenea Ekintzak, 2010.
- Nere amak baleki (Zibilak esan naute)* (Jose Maria Iparragirre), Miren Aranburu, *Gorri isila*, Errabal Jazz, 2002. [baita Patxi Andiñon, *José María Iparragirre Patxi Andiñon'en era*, 1973]
- Ni naiz*, Xabier Lete, *Xabier Lete*, Artezi, 1974. [baita Doctor Deseo, *Hay cuentos aún por inventar*, 1998.]
- Nire furgoi beltza*, Ruper Ordorika, *Ni ez naiz Noruegako errege*, Elkar, 1983.
- Por la boca vive el pez* (Adolfo Cabrales), Fito y los Fitipaldis, *Por la boca vive el pez*, DRO / Warner Music, 2006.
- Rehab* (Amy Winehouse), Amy Winehouse, *Back to Black*, Island, 2006.
- Ta zer ez da berdín* (Gerardo Pozo 'Gene'), Hertzainak, *Hertzainak*, Soñua, 1984.
- Tan lejos* (Kepa Murua), Gari, *Gari ta Otoitz gure alde*, Iparretarrak, 2002.
- Tears dry on their own* (Amy Winehouse, Nickolas Asholford eta Valerie Simpson), Amy Winehouse, *Back to Black*, Island, 2006.